

2006

# IV. Mapa Soziolinguistikoa



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

# 2006

## IV. Mapa Soziolinguistikoa

Vitoria-Gasteiz, 2009



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>>.

Argitaraldia: 1.a, 2009ko apirila

Ale-kopurua: 2000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Azala: Antton Olariaga

Maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: Grafo, S.A.

ISBN: 978-84-457-2942-7

Lege Gordailua: BI-1162-09

## AURKIBIDEA

<i>Gaitzak eta sendagaiak</i>	
Miren Azkarate Villar, Kultura sailburua	7
Hitzaurrea	
Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea	9

### IV. MAPA SOZIOLINGUISTIKOA, 2006

Azalpen metodologikoa	13
1. Egoera soziodemografikoa	15
1.1. Biztanleriaren bilakaera eta egitura	15
1.2. Atzerriko inmigrazioaren fenomenoak	19
1.3. Hezkuntza-ereduak	27
2. Hizkuntza-gaitasuna	33
2.1. Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera	33
2.2. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera	37
2.3. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera	41
2.4. Hizkuntza-gaitasuna gune soziolinguistikoaren arabera	48
2.5. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuetan	52

3. Hizkuntzaren transmisioa	63
3.1. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera	63
3.2. Lehen hizkuntza adinaren arabera	66
3.3. Elebidunen lehen hizkuntza	68
3.4. Hizkuntza-bilakaera (BILA indizea)	68
4. Euskararen erabilera etxean	75
4.1. Etxeko erabilera lurraldearen arabera	75
4.2. Euskararen erabilera etxean adinaren arabera	70
4.3. Euskararen erabilera etxean elebidunen artean	80
5. Ondorioak	85



**Miren Azkarate Villar**  
Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua

## GAITZAK ETA SENDAGAIAK

**E**USKARAK ETORKIZUNIK EZ DUELA, hil edo biziko egoeran dagoela, hil kanpaien harrabotsak askotan zabaldu dira gure artean. Baina, esanak esan ... euskara bizi da! Bati baino gehiagori bururatuko zaio XIX. mendeko euskararen apologis-tek ere honen antzeko aldarria egin zutela, horrelako mezua zabaldu zutela lau haizee-tara. Baina haiena, gainbehera zetorren hizkuntzari eusteko ahalegina zen; hitz haiek, nahiaren isla ziren, nahiaren eta ezinaren dialektikaren emaitza ez besterik. Egungo hitzok, ostera, errealitate sendo baten adierazle baino ez dira.

Euskara, beraz, bizi da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan bederen, sekula ez beza-la, pauso sendoz ari da indarberitzen. Izan ere, hogeita bost urtetan, hots, lehenbiziko emaitzak argitara eman zirenetik hona, 300.000 hiztun irabazi ditu euskarak EAEn. Laurogeiko hamarkadaren hasieran ez bezala, adin talderik gazteenak dira euskaldune-nak, gainera. Iragan luzea daukan gure hizkuntzak badu, beraz, etorkizunik. Eta izan-go du, askotariko elkarte eta erakundeak bidelagun dituen heinean eta belaunaldi berriek -nagusiki- euskara atxikitzen duten neurrian.

Hizkuntza gutxiagotu bat indarberitzeko zereginean gaitza zein den asmatzea da lehenbiziko lana. Gaitza asmatu ezean sendabiderako sendabelar aproposenak aukerat-zea ezinezko gertatzen baita, horretan egon ziur. Langintza horretarako ditugun bali-a-bideen artean mapa soziolinguistikoa dago, gure hizkuntzaren egoeraz eta bilakaeraz informazio-iturri baliotsua izateaz gain, EAEko Euskararen Legeak, euskararen oina-rrizko araubideak, Eusko Jaurlaritzari ezarri zion eginkizuna ere badena. Hona hemen, beraz, aurrekoen segidan datorren IV. Mapa Soziolinguistikoa, itxuraz berrietua eta era-biltzaileentzat iruzkin ohargarriez ongi hornitua.

Esan bezala euskarak hiztunak irabazi ditu, hiztunak eta erabilera-eremuak. Ez gaitetzen, baina, baikorkerietan eror! Ez gaitezen gure zilborrari begira gera! Lan handia egin dugun arren, are handiagoa baitugu eginkizun. Izan ere, gure gizartea bizkor ari da aldatzen, gaur eguneko zein bihar-etziko hiztunen hizkuntza-beharrak baldintzatuz. Premia horiek behar ditugu, beraz, aurreikusi, gure hizkuntza erabilera-eremu berrietarako prestatuz, landuz eta gaurkotuz, eta hiztunen beharrizanak orobat asebetetzeko urratsak eginez.

2009ko apirila.



**Patxi Baztarrika Galparsoro**  
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## HITZAURREA

**G**UTXIAGOTUTAKO HIZKUNTZA BAT INDARBERRITZEKO xedez hizkuntza horren, edo hobeto esanda, hizkuntza-erkidegoaren bizi-indarra, indarguneak, ahuleziak, bilakaera eta abar zein diren jakitea erabakigarria da. Horiek horrela, azterketa soziolinguistikoek euskara indartzeko noranzkoan egin dezaketen ekarpenaz jabeturik, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, bigarren xedapen gehigarrian, Eusko Jaurlaritzak Euskal Herriko gizarte-hizkuntzazko egitamuetarako mapa egingo duela eta hori aldian-aldian Eusko Legebiltzarrari jakinarazi ondoren berrikusiko duela jaso zen.

Inguruabar horretan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-09 aldirako zehaztutako (ikus Hizkuntza politika aurrera begira) jardunbide nagusien artean hogeita hamabigarrenak zera dio: “Bilakaera soziolinguistikoaren berri izateko ikerlanak bultzatzea (Euskal Herriko Hizkuntza Adierazleen Sistema –EAS–).” Lan-ildo honen barruan, besteak beste, legegintzaldian zehar hiru ikerketa burutzea aurreikusi ziren: batetik, III. Mapa Soziolinguistikoaren 2. zatia, familia bidezko transmisioari buruzkoa, hain zuzen; bestetik, Euskal Herriko IV. Inkesta Soziolinguistikoa; eta azkenik, IV. Mapa Soziolinguistikoa. Lehenbiziko ikerketa biak 2008. urtean argitaratu ziren. Eskuardean duzun argitalpen honek, IV. Mapa Soziolinguistikoak, beraz, gure araubideak ezarritakoa betetzea ez ezik hartutako konpromiso hori borobiltzea du xedetzat.

IV. Inkesta Soziolinguistikoak eta IV. Mapa Soziolinguistikoak 2006. urtean bildutako datuak dituzte oinarritzat; beraz, osagarriak diren ikerketak dira. Jakina denez, inkesta soziolinguistikoak, euskararen lurralde guztia kontuan hartuz, hamabost urte baino gehiago dituzten biztanleak aztertzen ditu; ez ditu, beraz, euskal hiztunen proportziorik altuenak dituzten belaunaldi gazteenen datuak kontuan hartzen. Mapa



Soziolinguistikoak, aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoa aintzat hartuz, zentsuko edo erroldako datuak hartzen ditu kontuan.

Esan bezala, Mapa Soziolinguistikoak EUSTAT erakundeak bildu eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskuratutako zentsuko eta erroldako datuak ustiatzen ditu. Zentsuko eta erroldako datuei dagokienez, zentsua 1 zenbakiarekin amaitzen diren urteetan egin ohi da, aldi bakarrean eta modu sistematikoan. 1996tik aurrera, baina, Erroldako oinarrizko datuak etengabe, uneoro, eguneratzen dira. 2006an, berriz, Erroldak jaso ohi dituen datu guztiak eguneratu eta 2006ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika egin du EUSTATEk. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika egiteko, Europa mailan berritzailea den metodologia erabili da lehen aldiz. Horiek horrela, EUSTAT erakundeak baliatutako 2006ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikako datuek osatzen dute Mapa Soziolinguistiko hau egiteko erabilitako iturria. Datuak, beraz, EUSTATEk eskuraturiko datu ofizialak dira, eta datu horien ustia-keta da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin duena, horiek baitira batari eta besteari dagozkion egitekoak.

Mapa Soziolinguistikoak lau aldagai aztertzen ditu: batetik, hizkuntza gaitasunaren bilakaera (1981eko zentsuan txertatutako aldagaia); bestetik, biztanleriaren lehen hizkuntza (1986. urtean txertatutako aldagaia); hirugarrenik, hizkuntza gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren arteko gurutzaketa, BILA indizea (1986tik aurrerako datuak kontuan hartuz); eta, azkenik, etxeko erabilera (1991. urtean gaineratutako aldagaia).

Datuen aurkezpenari dagokionez, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, hiru hiriburuetakota eta lau gune soziolinguistiko<sup>1</sup> araberako datuak eta joerak aztertu dira nagusiki. Udalerrikako datuak EUSTAT erakundearen web orrian daude. Nolanahi ere, joera batzuez hitz egiterakoan, hiriburuez landa, udalerrri batzuetako datuak ere aipagai dira, argigarri gertatuko diren esperantzan. Argitarapen honen erabiltzaileari edukia are ulergarriago gerta dakion egin dugu udalerrien aipamen hori.

Hona hemen, beraz, IV. Mapa Soziolinguistikoa euskararen egoeraz, biziraupenaz eta haren indarberritzeaz interesa zein kezka duen edonori eskura jartzen diogun lanabes berri eta berritua. Iragan luzea duen euskararen indarberritzea gertatzeko, noranzko horretan denon ahaleginak biderkatzeko ezinbesteko makulua.

2009ko apirila.

---

<sup>1</sup> Gune soziolinguistikoak:  
 1.a elebidunen % < 20;  
 2.a elebidunen % 20-50;  
 3.a elebidunen % 50-80;  
 4.a elebidunen % > 80.

2006  
**IV. Mapa  
Soziolinguistikoa**





## AZALPEN METODOLOGIKOA

2006ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika EUSTATEk egin du hainbat organismo publikoren laguntzarekin, eta, horretarako, hainbat administrazio-iturri hartu ditu oinarritzat. Aldaketa metodologikoa handia izan da. Europako estatistika-institutu garrantzitsuenetan, Suediakoan, Finlandiakoan edo Herbehereetakoan esaterako, erabiltzen hasi diren metodologia berriei jarraiki egin da. Aipatutako metodologia administrazio-erregistroak erabiliz eginiko tratamendu ait-zindarietan oinarritzen da. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren erreferentzia-data 2006ko azaroaren 1a da.

2006ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika EUSTATEk garatu duen lan-metodologian oinarritu da. Aipatutako metodologia horrek Biztanleriaren Erregistrotik ateratako datu-baseen tratamendua du abiaburu.

Administrazio-iturriak erabiltzeaz gain, 2006ko Demografiako eta Balidazioko Inkesta (DBI06) ere erabili da, aldagai eta kolektibo batzuen informazioa osatzeko. Gainera, oso tresna baliagarria da, estatistika eta demografia ondorioetarako, populazioari buruzko zifrak ahalik eta modu zehatzenean kalkulatzeko, tresna horrekin errolda-estaldurari buruzko akatsen informazioa bildu baitaiteke.

Beste inkesta batzuetako informazioa ere erabili da, besteak beste Biztanleriaren Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta (BJA) eta Lan-Merkatuaren Zentsua (LMZ), jarduerari buruzko ezaugarriak eguneratzeko.

Halaber, informazio-iturri osagarri gisa 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuko taulak erabili dira, informazio hori lotzeko beharrezko gakoak erabiliz. Informazio hori hobetzeko, banakakoen baliozko jarioak zehaztu behar izan dira, betiere denbora-aldagaia kontuan hartuz. Horrez gain, 2001eko norbanakoak Biztanleriaren erregistroan txertatu behar izan dira ahalik eta modu eraginkorrean.

Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikari heltzeko, lehenik eta behin, funtsezkoa izan da Biztanleriaren Estatistika Erregistroaren Ezohiko Eguneratzearen Proiektua egitea. Biztanleriaren Estatistika Erregistroaren Ezohiko Eguneratzea egin ondoren, biztanleria-oinarri fidagarria lortu da, eta hori oinarritzat hartuta, beste administrazio-iturri batzuk erabiliz, biztanleriaren oinarritzko ezaugarriak eguneratu dira eta zentsuen ohiko atalei buruzko aleak osatu dira: biztanleriaren egitura, jarduera, hezkuntza, euskara, migrazio-mugimenduak, familiak, ugalkortasuna eta etxebizitzak. Administrazio-fitxategiak eskatu, jaso, eta horiei tratamendua emateko lanak EUSTATEko langileen zuzeneko ardurapean egin dira.

Euskarari dagokionez, euskararen ezagutzari buruzko informazioa, euskararen ikaskuntzari eta lehen hizkuntzari buruzko informazio-iturriak erabiliz eguneratu da. Lehen hizkuntza, jakina, familia-harremanetatik eratorritakoa da.

Euskararen etxeko erabilerari buruzko informazioa eguneratzeko administrazio-iturri egokirik ez dagoenez, Inkesta Demografikotik eskuratutako informazio osagarria erabili da. Inkesta Demografikoaren lagina handitu egin da (30.000 etxebizitza, horietatik 25.000tan norbait bizi da), emaitzak adierazgarriak izan daitezen.

Hauek izan dira erabilitako informazio-iturriak:

1. Hezkuntza Saila: Selektibitatea.
2. Hezkuntza Saila: LOGSE tituluen erregistroak, baita hizkuntza-ikasketen tituluen erregistroak ere.
3. Hezkuntza Saila: Hizkuntza Eskola Ofizialetako Ikasleak, euskara modalitatean.
4. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE): Funtzionarioen euskara-ikasketak (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Udalak, Mankomunitateak, Eusko Legebiltzarra, Arartekoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Lan Harremanen Kontseilua, EHU, Osakidetza).
5. Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE): Helduen euskara-ikaskuntza (AEK, IKA, Udal euskaltegiak, Batuz, Elkarlan, Barnetegiak...).

## 1. EGOERA SOZIODEMOGRAFIKOA

### 1.1. Biztanleriaren bilakaera eta egitura

EUSTATen 2006ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren arabera, 2006an, EAeko biztanleria 2.129.339 pertsonakoa zen guztira. 2001eko populazioarekin konparatuz, biztanleriak %2 baino gehixeago gora egin duela esan nahi du. Emaiza demografikoa positiboa da, bai EAE osoan baita lurralde bakoitzean ere. Araba da aipagarriena, 2001 eta 2006 bitartean, bertako biztanleria ia %7 areagotu baita.

Biztanleriak oro har izandako hazkunde horrek inflexio-puntua sortu du populazioaren bilakaeran. Izan ere, 1981. urteaz geroztik, biztanleriak behera egin du, gutxi bada ere, bai Gipuzkoan, bai eta, batez ere, Bizkaian. Araban, berriz, biztanleriak motel egin du gora, baina etengabe.

Joera-aldaketa horrekin batera, biztanleriaren zahartze-prozesua gelditu egin da, eta biztanleria gazteena areagotu egin da, 2001. urtean ikusten hasi zen joera berretsiz.


Izan ere, 1981-2001 epean, 65 urtetik gorako populazioaren pisua bikoiztu arren (%9,1 1981ean, eta %17 2001. urtean); 2001 eta 2006 artean, joera hori egonkortu egin da (%17 eta %17,8 hurrenez hurren). Bestalde, 1981 eta 1996 artean, 5 urte baino gutxiagoko haurren populazioa %8,1 izatetik %4 izatera pasa zen; eta 2006ean, berriz, ehuneko hori %5,3koa da. Horrek esan nahi du, 1996. urtean baino 30.000 haur gehiago dagoela 2006an.

---

**Azken 20 urteotan lehen aldiz, EAeko hiru lurraldeetan biztanleriak gora egin du. Errekuperazio demografikoarekin batera, biztanleriaren zahartze-prozesua gelditu egin dela dirudi, eta 2001. urtean biztanleria gazteenean hasitako gorakada hori baieztatu egin da.**

Populazioa adin-taldean arabera sailkatuz gero, egitura oso antzekoa da EAE osoan eta hiru lurraldeetan. Populazioaren gehiengoa 25-49 urte arteko sektorean dagoen arren, aipagarria da azken urte hauetan, 75 urtetik gorakoen taldeak, bereziki emakumeenak, eta gazteen taldeak izan duten gorakada.

### 1. irudia. EAEko biztanleriaren bilakaera, 1981-2006



Iturria: EUSTAT

### 1. taula. Biztanleriaren bilakaera, 1981-2006

	1981	1986	1991	1996	2001	2006
Araba	257.850	267.728	272.447	281.821	286.387	305.822
Bizkaia	1.189.278	1.179.150	1.155.106	1.140.026	1.122.637	1.136.852
Gipuzkoa	694.681	689.222	676.488	676.208	673.563	686.665
<b>EAE</b>	<b>2.141.809</b>	<b>2.136.100</b>	<b>2.104.041</b>	<b>2.098.055</b>	<b>2.082.587</b>	<b>2.129.339</b>

Iturria: EUSTAT

**2. taula.** Biztanleriaren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1981-2006 (%)

Adina	1981	1986	1991	1996	2001	2006
>65	9,1	10,2	12,4	14,9	17,0	17,8
50-64	15,0	16,9	17,1	17,2	17,7	18,7
30-49	26,2	25,9	28,0	30,0	31,1	32,5
15-29	24,1	25,1	25,3	24,3	21,6	18,0
5-14	17,6	16,2	13,0	9,6	7,9	7,7
<5	8,1	5,6	4,2	4,0	4,7	5,3
<b>Guztira</b>	<b>2.141.809</b>	<b>2.136.100</b>	<b>2.104.041</b>	<b>2.098.055</b>	<b>2.082.587</b>	<b>2.129.339</b>

Iturria: EUSTAT

Hiru lurraldeetan, biztanleriaren bilakaera eta adinaren araberako egitura oso antzekoak izan arren, alde nabaria dago biztanleria-nukleoaren tamainaren araberako biztanleria-banaketan.

Lurralde bakoitzean biztanleriaren banaketa aztertzen hasi aurretik, kontuan hartu behar da EAE nagusiki hiritarra dela. Izan ere, biztanleriaren %35 baino gehiago hiru hiriburuetako batean bizi da, eta hirigune guztiak kontuan hartzen baditugu, ehuneko hori ia %80 da<sup>2</sup>.

Araban, biztanleriak kontzentrazio- eta polarizazio-tasa handia du. Udalerrri bakar batean, Gasteizen, lurraldeko populazioaren %75 baino gehiago bizi da. Gainontzeko 50 udalerrriak 5.000 biztanle baino gutxiagokoak dira (Laudio eta Amurrión izan ezik), eta, guztira Arabako biztanleriaren %15,7 bizi da udalerrri horietan.

Bizkaian ere, biztanleriak kontzentrazio-tasa handia du, baina ez dago Araban bezain polarizatua. Izan ere, Bizkaian, biztanleriaren %70 baino gehiago 20.000 biztanleko udalerrietan bizi da, baina lurralde horretan horrelako 11 udalerrri daude, ez bakar bat. Hala eta guztiz ere, kontzentrazio-tasa handia da, udalerrri horiek guztiak, Durango izan ezik, Bilbo Handian kokatuta baitaude. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei dagokienez, Bizkaiko populazioaren %10 inguru bizi da, eta udalerrri ertainetan, hots 5.000 eta 20.000 biztanle bitartekoetan, populazioaren %20.

Azkenik, Gipuzkoan biztanleria askoz ere banatuago dago lurralde osoan. Udalerrri handietan biztanleriaren erdia bizi da gutxi gorabehera; eta gainera,

<sup>2</sup> Oro har, hirigunetzat jotzen dira 10.000 biztanleko edo gehiagoko udalerrriak.



Bizkaian ez bezala, udalerrri horiek ez daude hiriburuaren inguruan kokatuta. Bestalde, udalerrri txikietan populazioaren %10 bizi da. Gipuzkoako udalerrri txikiak lurralde horretako udalerrrien %65 dira, hau da, ehunekorik txikiena gainerako lurraldeenarekin konparatuz gero. Hala ere, aipagarriena udalerrri ertainen garrantzia da, Gipuzkoako udalerrri guztien %28 osatzen baitute, eta populazioaren ia %40 udalerrri ertainetan bizi baita.

**3. taula.** Biztanleriaren banaketa udalarrrien tamainaren arabera. EAE, 2006

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Txikiak (<5.000)	15,7	9,7	10,3
Ertainak (5.000-20.000)	9,2	19,3	38,8
Handiak (>20.000)	75,1	71,0	51,0

Iturria: EUSTAT

Lurralde bakoitzean, hiriburuak oso garrantzitsuak direnez, hiriburuaren eta lurraldearen bilakaera oso antzekoak dira. Jarraian, hiru hiriburuetakoko biztanleriaren bilakaera eta egitura aztertuko ditugu.

Era horretan, 1981-2006 bitartean, Gasteizeko biztanleria nabarmen ugartu da, 40.000 biztanleko saldo positiboa izan baitu. Bilbon, berriz, 1981-2001 artean, biztanleria nabarmen gutxitu zen, 44.000 biztanleko galera gertatu baitzen. 2001-2006 artean joera hori aldatu egin da, epe horretan, populazioa egonkortu egin baita: 1.000 biztanle inguruko saldo positiboa egon da garai horretan; hots, biztanleria %0,3 areagotu da.

Donostian, berriz, joera erdi bidekoa izan da, azken 25 urteotan biztanleria heinean-heinean etengabe hazten joan baita. Populazioa ia %7 hazi da Donostian, Gasteizen baino hiru aldiz gutxiago, Arabako hiriburuan, biztanleria %21 baino gehiago areagotu baita.

Adin-taldearen araberrako egiturari dagokionez, hiru hiriburuetan oso antzekoa da, baina Gasteizek du biztanle gazte gehien. Biztanleen ia herena (%32,8) 30 urte baino gutxiagokoa da, eta Bilbon nahiz Donostian, populazio gazteak biztanleriaren %29-30 osatzen du. Bilbok du hiru hiriburuetakoko biztanleria zaharkituena, bertako populazioaren ia %21ek 65 urte baino gehiago baitu.

## 1.2. Atzerriko immigrazioaren fenomenoak

EAEko atzerriko immigrazioaren fenomenoak aztertzeko, azken hamarkada aztertuko dugu; hots 1998-2007 artekoa, hain zuzen ere epe horretan areagotu baita batez ere atzeritar kopurua. Izan ere, INEren arabera, 2007. urtean, ia 100.000 atzeritar zeuden EAEn errolatuta (98.524), eta 1998. urtean, 15.000 inguru ziren (15.198). Horrek esan nahi du, azken hamarkadan, atzerriko biztanleria sei bider baino gehiago areagotu dela. Hala ere, atzerriko populazioaren garrantzi erlatiboa ez da oso handia, ez baitu biztanleria osoaren %5 ere osatzen. Inguruko erkidego autonomoekin, esaterako Nafarroarekin edo Errioxarekin konparatuz, oso ehuneko apala da hori, bi erkidego horietan, atzerriko biztanleriaren ehunekoak %9,2 eta %11,9 baita hurrenez hurren, Espainiako Estatuaren batez bestekoaren ingurukoa (%10), hain zuzen ere.


**Azken hamarkadan, atzerriko populazioa sei bider baino gehiago areagotu da. Atzerriko biztanleria oso gaztea da, % 75ek 40 urte baino gutxiago dute, eta gehienak Latinoamerikatik (% 47,6) eta Europatik (% 28,8) iritsi dira. Azken horien artean gehienak Europa Ekialdetik iritsi dira.**

**4. taula.** Atzeritarren bilakaera autonomia-erkidego desberdinetan. 1998-2007 (%)

	Atzeritarrak (%)									
	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
<b>ESPAINIA</b>	<b>1,6</b>	<b>1,9</b>	<b>2,3</b>	<b>3,3</b>	<b>4,7</b>	<b>6,2</b>	<b>7,0</b>	<b>8,5</b>	<b>9,3</b>	<b>10,0</b>
MADRILGO ERKIDEGO	2,3	2,6	3,2	5,7	8,0	10,3	11,4	13,1	13,3	14,3
KATALUNIA	2,0	2,3	2,9	4,0	5,9	8,1	9,4	11,4	12,8	13,5
NAFARROAKO FORU ERKIDEGO	0,8	1,1	1,7	3,5	5,4	6,7	7,4	8,4	9,2	9,2
<b>Euskal Autonomia Erkidegoa</b>	<b>0,7</b>	<b>0,8</b>	<b>1,0</b>	<b>1,3</b>	<b>1,8</b>	<b>2,3</b>	<b>2,8</b>	<b>3,4</b>	<b>4,0</b>	<b>4,6</b>

Iturria: INE. 2008

## 2. irudia. Atzerritarren bilakaera. EAE, 1998-2007




Iturria: INE. 2008

Zifra absolutuetan, atzerriko populazioaren banaketa populazio osoaren egungo banaketarena (2007) bezalako da: Atzerriko biztanle gehien Bizkaian bizi da (%50,8), jarraian Gipuzkoan (%29,5), eta azkenik, Araban (%19,7). Hala ere, hiru lurraldeetan atzerriko populazioaren garrantzia erlatiboa aztertzen badugu, ikusiko dugu, Bizkaian eta Gipuzkoan antzeko pisua dutela (%4,4 eta %4,2, hurrenez hurren), eta Araban atzerriko populazioaren ehunekoa askoz ere handiagoa dela, %6 baino gehiago (%6,3). Arabaren eta beste bi probintzien arteko alde hori aztertutako epe ia osoan (1998-2007) berdintsua da.

Atzerriko populazioaren bilakaerari dagokionez, aipagarria da, 2001etik aurrera, biztanleria horren hazkuntza-erritmoa handitu egin dela, eta gaur egun arte erritmo hori gutxi gorabehera aldaketarik gabe mantendu dela.

3. irudia. Atzerritarren bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1998-2007 (%)



Iturria: INE. 2008


5. taula. Atzerritarren bilakaera. EAE, 1998-2007

Urtea	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Biztanleria	Atzerritarrak		Biztanleria	Atzerritarrak		Biztanleria	Atzerritarrak		Biztanleria	Atzerritarrak	
		Kop.	%		Kop.	%		Kop.	%		Kop.	%
1998	2.098.628	15.198	0,7	284.595	2.460	0,9	1.137.594	7.437	0,7	676.439	5.301	0,8
1999	2.100.441	16.793	0,8	285.748	2.801	1,0	1.137.418	7.633	0,7	677.275	6.359	0,9
2000	2.098.596	21.140	1,0	286.497	3.818	1,3	1.132.729	9.419	0,8	679.370	7.903	1,2
2001	2.101.478	27.438	1,3	288.793	5.462	1,9	1.132.616	13.120	1,2	680.069	8.856	1,3
2002	2.108.281	38.408	1,8	291.860	8.031	2,8	1.133.444	18.661	1,6	682.977	11.716	1,7
2003	2.112.204	49.231	2,3	294.360	10.445	3,5	1.133.428	23.908	2,1	684.416	14.878	2,2
2004	2.115.279	59.166	2,8	295.905	12.058	4,1	1.132.861	28.876	2,5	686.513	18.232	2,7
2005	2.124.846	72.894	3,4	299.957	15.141	5,0	1.136.181	36.217	3,2	688.708	21.536	3,1
2006	2.133.684	85.542	4,0	301.926	16.857	5,6	1.139.863	43.395	3,8	691.895	25.290	3,7
2007	2.141.860	98.524	4,6	305.459	19.392	6,3	1.141.457	50.092	4,4	694.944	29.040	4,2

Iturria: INE. 2008

2007ko atzerriko populazioaren piramidea sexuaren eta adinaren arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu sexuari dagokionez, banaketan ez dela alde handirik ikusten, baina, adinari dagokionez, aipagarria da oso populazio gaztea dela, lau lagunetik hiru 40 urtetik beherakoak baitira. 1998 eta 2007 bitartean izandako bilakaerari dagokionez, aipagarria da, atzerriko populazioan gertatu den hazkundeak populazio hori gaztetu egin duela. 1998an, 40 urtetik beherako populazioa %65,4 zen, hots, 2007an baino 10 puntu gutxiago. Sexuaren araberako banaketan, berriz, ia ez da aldaketarik gertatu.

#### 4. irudia. EAEko atzeritarren piramidea. 1998-2007 (%)




Iturria: INE. 2008

Arestian aipatu dugun bezala, EAEko biztanleria osoan, atzerriko populazioak ehuneko apala (%4,6) osatzen du oraindik. Hala ere, adin-talde jakin batzuetan, bereziki 20 eta 40 urte bitartekoetan, atzerriko populazio handia biltzen denez, 40 urtetik beherako talde ia guztietan, atzerriko populazioak pisu handia hartu du, batez besteko ehunekoak gaindituz, bereziki 20 eta 30 urte arteko taldeetan, bertan %10 inguruko portzentajea osatzen baitu atzerriko biztanleriak. 55 urtetik gorako adin-taldeetan, berriz, atzerriko populazioaren garrantzia oso txikia da, eta oso gutxitan gainditzen du %1eko ehunekoa.

Hiru lurraldeen arabera azterketa egiten badugu, ikusiko dugu oro har nahiz adin-taldearen arabera Araban daudela atzerriko biztanleriaren ehuneko handienak, lehen aipatutako adin-taldeetan %11-13 inguruko ehunekoa osatzen baitu atzerriko populazioak. Bizkaia eta Gipuzkoan, atzerriko biztanleriaren portzentajea askoz ere apalagoa da, bi lurraldeetako balioak antzekoak izanik. Oro har, aipatu behar dugu, 40 urtetik gorako adin-taldeetan, Bizkaiko ehunekoak apur bat apalagoak direla, eta adin horretatik beherako adin-taldeetan, berriz, apur bat handiagoak.

5. irudia. Atzeritarren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1998-2007 (%)



Iturria: INE. 2008

**6. taula.** Atzerritarren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1998-2007 (%)

Adina	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	1998	2007	1998	2007	1998	2007	1998	2007
≥ 75	0,4	0,4	0,3	0,4	0,4	0,3	0,5	0,5
70 a 74	0,3	0,5	0,3	0,6	0,3	0,4	0,4	0,6
65 a 69	0,3	0,8	0,3	0,8	0,3	0,7	0,4	0,9
60 a 64	0,3	0,9	0,2	1,3	0,3	0,8	0,3	1,0
55 a 59	0,4	1,5	0,3	2,1	0,4	1,3	0,6	1,5
50 a 54	0,5	2,6	0,5	3,4	0,4	2,3	0,6	2,7
45 a 49	0,7	3,6	0,6	4,7	0,6	3,3	0,9	3,6
40 a 44	1,0	5,0	1,0	6,8	0,9	4,7	1,2	4,8
35 a 39	1,2	7,0	1,3	9,3	1,1	6,7	1,3	6,7
30 a 34	1,3	8,5	1,6	11,3	1,2	8,2	1,2	7,8
25 a 29	1,1	10,2	1,6	12,6	1,0	9,9	1,0	9,7
20 a 24	0,7	9,2	0,8	11,7	0,6	9,0	0,8	8,4
15 a 19	0,7	6,6	0,9	9,1	0,6	6,7	0,7	5,3
10 a 14	0,8	6,1	1,2	9,1	0,7	6,4	0,7	4,3
5 a 9	0,7	5,4	1,1	7,7	0,6	5,7	0,6	3,9
< 5	0,4	4,2	0,9	7,4	0,3	4,1	0,2	2,9

Iturria: INE. 2008

Atzerriko populazioa nazionalitatearen arabera aztertzen badugu, 1998 eta 2007 artean aldaketa nabariak gertatu direla ikusiko dugu.


Epe horren hasieran, EAE mailan oro har, atzerriko populazioaren gehiengoa europarra zen, eta atzerriko populazioaren erdia (%49,9) osatzen zuen. Bigarren postuan, tarte handira, Latinoamerikako atzerritarren taldea zegoen, %20 osatuz; eta oso gertu, %18ko ehunekoa osatuz, Afrikako atzerritarren taldea. Europar nazionalitateen barne, atzerritarren %90 baino gehiago Europar Batasuneko estatu kideetakoak (EU 15)<sup>3</sup> ziren, portugaldarrak ia erdiak. Gainontzeko %9,7 Europa Ekialdeko herrialdeetakoak ziren.

Gaur egun (2007), banaketa hori nabarmen aldatu da. Europako biztanleriak garrantzia galdu du, eta latinoamerikarrek atzerriko biztanleriaren ia erdia osatzen dute (%47,6), 1998an baino 15 bider handiagoa baita talde hori. Europarren taldeak pisua galdu arren, ia 20 puntuko gainbehera izan baitu (%49,9tik %28,8ra), bigarren postuan dago. Europarren taldearen barne-egiturari dagokionez, aipaga-

<sup>3</sup> 15 kideko Europar Batasuna. Alemaniako datuen barne Ekialdeko Alemaniako datuak daude.

ria da Europa Ekialdeko populazioaren hazkundera, 2007. urtean EAEko europar populazioaren erdia osatzen baitute, eta 1998an, berriz, Ekialdeko Europako pertsonak ez baitzuten %10eko portzentajea osatzen. Hazkunde hori oso deigarria izan da errumaniar biztanleriaren kasuan. Izan ere, azken hamar urteotan, 30 bider areagotu da talde hori: 1998an, Europako biztanleen %1,3 osatzen zuten errumaniarrek, eta 2007an, berriz, %30,8.

Afrikarrei dagokienez, atzerriko populazioaren hirugarren postuan jarraitzen dute (%17,1) 1998ekoaren antzeko zifra izanik.



Hiru lurraldeek EAEren antzeko joera dute. Europako populazioak pisua galdu du, Latinoamerikakoa, berriz, nabarmen hazi da. Europarren artean, pisu berezia dute Europa Ekialdeko nazionalitateek, bereziki errumaniarrek.



**7. taula.** Biztanle atzerritarren egitura nazionalitatearen arabera. EAE, 1998-2007 (%)

Nazionalitatea	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	1998	2007	1998	2007	1998	2007	1998	2007
Europarra	49,9	28,8	41,6	26,2	44,0	24,8	62,1	37,3
Portugesak	42,7	26,2	44	35,8	34,1	17,2	50,8	32,1
Frantsesa	14,9	7,6	8,8	5,3	15,6	5,5	16,1	11,1
UEko gain. (15)	32,9	19,4	35,7	16,5	39,7	19,8	25,2	20,6
Errumaniarra	1,3	30,8	0,9	21,7	1,8	46,2	1	17,3
Besterik	8,1	15,9	10,4	20,7	8,9	11,2	6,8	19,0
Afrikarra	17,9	17,1	24,8	27,6	18,2	15,1	14,1	13,5
Latinoamerikarra	21,1	47,6	24,5	39,9	23,3	53,6	16,3	42,4
Besterik	11,1	6,5	9,1	6,3	14,5	6,5	7,5	6,8
<b>Guztira</b>	<b>15.198</b>	<b>98.524</b>	<b>2.460</b>	<b>19.392</b>	<b>7.437</b>	<b>50.092</b>	<b>5.301</b>	<b>29.040</b>

Iturria: INE. 2008

Hala ere, lurraldeen artean bada alderik. Araban aipagarria da Afrikako biztanleria (%24,8). 1998. urtean, EAEko batez bestekoa baino 7 puntu handiagoa zen, eta Europako populazioaren ondotik, atzerritarren bigarren talde handiena osatzen dute. 2007. urtean, Afrikako populazioa europarra baino pixka bat handiagoa da (%27,6 eta %26,2, hurrenez hurren), baina bigarren postuan jarraitzen du, latino-amerikarrek pisua irabazi baitute (%39,9).

Gipuzkoan, europar populazioa bereziki aipagarria da, 1998. urtean, Gipuzkoan bizi zen atzerriko populazioaren %60 osatzen baitzuen. 2007. urtean, ehuneko askoz ere apalagoa izan arren (%37,3), Arabakoa eta Bizkaikoa baino handiagoa da, eta EAEko batez bestekoa baino ia 10 puntu handiagoa. Hala eta guztiz ere, latinoamerikar populazioarena (%42,4) baino pixka bat apalagoa da.

Azkenik, Bizkaian EAEn oro har dagoenaren antzeko banaketa dago. Hala ere, aipagarria da, lurralde horretan garrantzitsuena latinoamerikar populazioa dela, atzerriko biztanleriaren %53,6a osatzen baitu. Bizkaian biltzen da errumaniar nazionalitateko ehuneko handiena, Europar populazioaren ia erdiak (%42,6) nazionalitate hori baitu.

Atzerriko populazioaren bilakaeraren ezaugarriak oso garrantzitsuak dira hizkuntzaren ikuspegitik. Izan ere, latinoamerikar ia guztiak (2007. urtean 47.000) erdaldunak dira, hots gaztelania-hiztunak, eta horrek gaztelaniaren egoera indartu egiten du.

### 1.3. Hezkuntza-ereduak

2007-2008 ikasturteko irakaskuntza-matrikulak aztertuko ditugu<sup>4</sup>. EUSTATEk emandako araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioko datuak ikusiko ditugu lehenik. Guztira 319.842 ikasle ditugu ikasturte horretan. Horietatik %56, hau da, 179.076 ikasle, D ereduan matrikulatuta daude. B ereduan %23,2, hau da, 74.077 ikasle eta azkenik, %20,9 daude matrikulatuta A<sup>5</sup> ereduan, 66.689 ikasle, alegia.

Ikasketa-maila kontuan hartzen dugunean, askoz handiagoa da ereduen arteko aldea. Zenbat eta ikasketa maila txikiagoa izan, hainbat eta handiagoa da D ereduan matrikulatutako ikasleen kopurua.

2007-2008 ikasturtean, Batxilergoan A ereduan ari dira ikasleen ia erdia %49,9. Dena dela, kontuan izan behar da B ereduaren pisua oso-oso txikia dela, %1,3 besterik ez. D ereduan %48,7 daude matrikulatuta. Esan daiteke nahiko parekatuta daudela A eta D ereduak

Derrigorrezko bigarren hezkuntzari dagokionez, D ereduan ikasten dute erdiak baino gehiagok, %51,5ek, B ereduan %26,1ek eta A ereduan %22,4k.

Azkenik, Haur hezkuntzan, ikasleen %69 D ereduan matrikulatuta daude, %25,1 B ereduan eta %5,9 baino ez A ereduan.

Lanbide heziketan, ordea, bestelakoak dira datuak. Ikasle gehien-gehienak A ereduan daude matrikulatuta: lautik hiru baino gehiago (%76,5). D ereduan %20,5 daude matrikulatuta eta %2,9 B ereduan.

**Hezkuntza-ereduak abian jartzea eta euren bilakaera erabakigarriak izan dira elebidunen kopuruaren hazkunderan.**


<sup>4</sup> Helduen Hezkuntza izan ezik.

<sup>5</sup> Gaur egun X ereduko ikasleak, euskararik gabekoak, oso gutxi direnez, A eredukoei gehitu zaizkie.

**8. taula.** Irakaskuntza ez unibertsitaria hezkuntza-ereduaren arabera. EAE, 2007/08

Ereduak	Haur h.	Lehen h.	DBH	Batxilergoa	Lanbide h.	H. berezia
A+X	5.223	11.472	15.435	14.538	19.297	724
B	22.154	32.728	17.968	386	740	101
D	60.931	63.129	35.478	14.188	5.177	173
<b>Guztira</b>	<b>88.308</b>	<b>107.329</b>	<b>68.881</b>	<b>29.112</b>	<b>25.214</b>	<b>998</b>

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

**7. irudia.** Irakaskuntza ez unibertsitaria hezkuntza-ereduaren arabera. EAE, 2007/08

**Oharra:** zirkuluen tamaina maila bakoitzeko ikasle kopuruaren araberakoa da.

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Datu horiek guztiak EAE osoari dagozkie, baina hiru lurraldeetako matrikulazioa aztertuz gero, ikus daiteke lurraldearen arabera ere duen banaketa desberdina dela.

Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioko matrikulazio osoari erreparatuko diogu lehenik. Gipuzkoan erabat nagusi da D eredu gainerako bi eredu aldean. Gipuzkoako ikasleen %71,5 dago matrikulatuta D eredu, %19,2 B eredu eta %9,3 A eredu.

Bizkaian ere D eredu da nagusi, ikasleen %51,3 ari baita ikasten eredu horretan. Bizkaiko ikasleen %25,7 A eredu daude matrikulatuta eta B eredu %23.

Araban ere D eredu da nagusi, baina neurri txikiagoan. Ikasleen %35,8 D eredu daude matrikulatuta, %33,2 B eredu eta %31 A eredu.

**9. taula.** Irakaskuntza ez unibertsitaria hezkuntza-eredu eta lurraldearen arabera. EAE, 2007/08

Ereduak	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Guztira	A+X	B	D	Guztira	A+X	B	D	Guztira	A+X	B	D
Haur hezkuntza	12.552	7,7	45,9	46,4	44.465	8,1	26,5	65,4	31.291	2,1	14,8	83,1
Lehen hezkuntza	15.446	18,6	44,3	37,0	55.161	13,9	30,6	55,5	36.722	2,6	24,5	72,9
DBH	9.986	36,7	28,7	34,6	35.891	30,3	23,7	46,0	23.004	3,9	28,6	67,4
Batxilergoa	4.462	66,6	0,0	33,4	14.873	57,2	0,5	42,3	9.777	31,2	3,2	65,5
Lanbide heziketa	4.060	95,1	0,0	4,9	12.645	86,7	2,3	11,0	8.509	52,5	5,3	42,2
H. berezia	210	78,1	10,5	11,4	499	87,6	2,6	9,8	289	42,6	22,8	34,6
<b>Guztira</b>	<b>46.716</b>	<b>31,0</b>	<b>33,2</b>	<b>35,8</b>	<b>163.534</b>	<b>25,7</b>	<b>23,0</b>	<b>51,3</b>	<b>109.592</b>	<b>9,3</b>	<b>19,2</b>	<b>71,5</b>

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Dena dela, arestian bezala, ikasketa-maila kontuan hartzen dugunean, askoz handiagoa da eredu arteko aldea hiru lurraldeetan. Zenbat eta ikasketa maila txikiagoa izan, hainbat eta handiagoa da D eredu matrikulatutako ikasleen kopurua.

Gipuzkoan haur hezkuntzan ikasleen %83,1 D eredu matrikulatuta daude, %14,8 B eredu eta %2,1 baino ez A eredu.


Bizkaian haur hezkuntzako ikasleen %65,4 D eredu daude, %26,5 B eredu eta %8,1 dira A eredu matrikulatutakoak.

Araban haur hezkuntzan D eta B eredu oso parekatuta daude. Haur hezkuntza-ko ikasleen %46,4 D ereduaren daude matrikulatuta. %45,9 B ereduaren daude matrikulatuta eta %7,7 baino ez A ereduaren.

Hezkuntza-ereduak abian jarri zirenetik, izugarrizko hazkundera izan du D ereduak, B ereduak ere hazkundera izan du, baina txikiagoa, ia aldaketarik gabe egon baita azken urteotan. A ereduaren pisua, ordea, murriztuz joan da urtetik urtera.

1983-1984 ikasturtean EAEko ikasleen %77,7 A+X ereduaren matrikulatuta zegoen, baina 2007-2008 ikasturtean %20,9 dira eredu horretan matrikulatu direnak. Horrek esan nahi du A ereduak 23 urtetan ia 57 puntu galdu dituela. D ereduarekin alderantziz gertatu da, %14,2 izatetik %56 izatera pasatu da. Ia 42 puntu irabazi ditu D ereduak. Azkenik, B ereduak igoera txikiagoa izan du 23 urte horietan. Ikasleen %8,1 zeuden matrikulatuta B ereduaren 1983-1984 ikasturtean; %21 dira, ordea, 2007-2008 ikasturtean. B ereduak ia 13 puntuko igoera izan du 24 ikasturtetan.

**8. irudia.** Irakaskuntza ez unibertsitarioaren bilakaera hezkuntza-ereduaren arabera. EAE, 1983/84-2007/08



Iturriak: EUSTAT (1983/84-2006/07) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2007/08)

**10. taula.** Irakaskuntza ez unibertsitarioaren bilakaera hezkuntza-ereduaren arabera.  
EAE, 1983/84-2007/08

Ikasturtea	Guztira	Hezkuntza-ereduak (kop.)			Hezkuntza-ereduak (%)		
		A+X	B	D	A+X	B	D
1983/84	524.448	407.705	42.401	74.342	77,7	8,1	14,2
1985/86	513.146	377.226	52.925	82.995	73,5	10,3	16,2
1987/88	499.154	343.705	64.821	90.628	68,9	13,0	18,2
1989/90	471.241	302.910	73.055	95.276	64,3	15,5	20,2
1991/92	437.377	261.910	75.269	100.198	59,9	17,2	22,9
1993/94	405.405	227.503	70.767	107.135	56,1	17,5	26,4
1995/96	373.022	190.912	68.465	113.645	51,2	18,4	30,5
1997/98	341.490	154.499	64.050	122.941	45,2	18,8	36,0
1999/00	317.152	121.908	66.550	128.694	38,4	21,0	40,6
2001/02	302.663	99.639	66.932	136.092	32,9	22,1	45,0
2003/04	301.497	87.747	67.967	145.783	29,1	22,5	48,4
2005/06	310.309	75.971	71.284	163.054	24,5	23,0	52,5
2007/08	319.842	66.689	74.077	179.076	20,9	23,2	56,0

**Iturriak:** EUSTAT (1983/84-2006/07) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2007/08)



## 2. HIZKUNTZA-GAITASUNA

### 2.1. Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera

Bost urte edo gehiagoko 2.016.257 pertsona bizi dira Euskal Autonomia Erkidegoan 2006an, EUSTATEko datuen arabera. Horietatik, 755.640 pertsona (%37,5) elebidunak<sup>6</sup> dira, beste 349.691 pertsona (%17,3) elebidun hartzaileak<sup>7</sup> eta azkenik, 910.926 pertsona (%45,2) erdaldun elebakarrak<sup>8</sup>.

**Bost urte edo gehiagoko  
755.640 pertsona dira  
elebidunak EAEn, hirutik bat  
baino gehiago.**

**11. taula.** Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2006

	<b>Guztira</b>	<b>Elebidunak</b>	<b>Elebidun hartzaileak</b>	<b>Erdaldun elebakarrak</b>
Araba	<b>289.526</b>	72.248	51.519	165.759
Bizkaia	<b>1.079.458</b>	338.228	196.205	545.025
Gipuzkoa	<b>647.273</b>	345.164	101.967	200.142
EAE	<b>2.016.257</b>	755.640	349.691	910.926


Iturria: EUSTAT

<sup>6</sup> Elebidunak ondo hitz egiten du euskaraz zein gaztelaniaz.

<sup>7</sup> Elebidun hartzailea gai da euskara ondo ulertzeko, nahiz eta ondo ez hitz egin.


<sup>8</sup> Erdaldun elebakarra ez da gai ez euskara ulertzeko ezta hitz egiteko ere.



**9. irudia.** Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2006

Lurraldeen datuak aztertuz gero, gaur egun gipuzkoarren erdia baino gehiago elebidunak dira (345.164 pertsona). Bizkaian ia hirutik bat dira elebidunak (338.228 pertsona). Azkenik, Araba da elebidunen ehunekorik eta kopururik txikiena duena. Lautik bat dira elebidunak (72.248 pertsona).

## 10. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2006



**Oharra:** zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

**Iturria:** EUSTAT

Atzera begiratuz gero, ikusten da elebidunen ehunekoak nabarmen egin duela gora azken 25 urteotan. %22 ziren 1981ean; %37,5, ordea, 2006an. Gaur egun orain dela 25 urte baino 300.000 pertsona gehiago dira gai euskaraz egiteko.

Elebidun hartzaileek ere gora egin dute; %12,2 ziren 1981ean eta %17,3 2006an. Dena dela, azken bost urteotako datuen arabera, beherantz egin dute elebidun hartzaileak, nahiz eta oso beherakada apala izan. Jaitsiera hori adinarekin dago lotuta, gazteenen artean gertatu baita.

Erdaldun elebakarrek, aldiz, behera egin dute nabarmen. %65,9 ziren 1981ean eta %45,2 dira 2006an. Ia 20 puntuko beherakada izan dute. Duela 25 urte baino ia 400.000 erdaldun elebakar gutxiago daude.

Lurralde guztietan egin du gora elebidunen ehunekoak. Gorakadarik handiena Arabak izan du. 1981ean arabarren %4 baino ez baitziren elebidunak (9.379 pertsona).

Bizkaian ere elebidunek gorakada handia izan dute. Bizkaian %15 ziren elebidunak 1981ean. Bikoiztu egin da Bizkaiko elebidunen ehunekoa (1981eko %15 versus 2006ko %31,1).

Gipuzkoa da ehunekoetan bilakaera txikiena izan duen lurraldea (%40 versus % 53,3). Kontuan hartu behar da, halere, elebidunen ehunekorik handiena zuela duela 25 urte eta gainera alde handiz. Horrek ehunekoen hazkunde txikiagoa dakar.

**12. taula.** Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera lurraldeka. EAE, 1981-2006

	Guztira		Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak	
	1981	2006	1981	2006	1981	2006	1981	2006
Araba	235.134	289.526	4,0	25,0	8,1	17,8	87,9	57,3
Bizkaia	1.094.197	1.079.458	15,2	31,3	11,4	18,2	73,4	50,5
Gipuzkoa	639.707	647.273	40,0	53,3	15,1	15,8	44,9	30,9
EAE	1.969.038	2.016.257	21,9	37,5	12,2	17,3	65,9	45,2

Iturria: EUSTAT

## 2.2. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

30 urtetik beherako biztanleen erdia baino gehiago dagoeneko elebidunak dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Horren ondorioz, adin horretako elebidun hartzaileen eta erdaldun elebakarren ehunekoa gutxituz doa urtetik urtera. Are gehiago, 15 urte edo gutxiagoko gazteen %70etik gora elebidunak dira azken datuen arabera.

30-50 urtekoen artean pisu handiena erdaldun elebakarrek izan arren, elebidunek zein elebidun hartzaileek ere pisu handia dute. Joera orokorrari jarraituz, adinean gora egin ahala, elebidunen eta elebidun hartzaileen ehunekoa murriztuz doa eta erdaldun elebakarren ehunekoa, aldiz, handituz.

Bestalde, 50 urtetik gorakoen artean, adin-multzo guztietan %60 baino gehiago dira erdaldun elebakarrak eta elebidun hartzaileak ez dira %14ra ere iristen. Erdaldun elebakarren ehunekorik handiena 60-64 urte bitartekoena (%67,9) da, eta txikiena 50-54 urte bitartekoena (%61,9).


**Gaur egun, zenbat eta gazteagoak orduan eta elebidunagoak dira EAEko biztanleak, batez ere 30 urte edo gutxiago dituztenak.**

**13. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2006

Adin-taldeak	Guztira	Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
≥65	<b>379.285</b>	97.387	25,7	26.570	7,0	255.328	67,3
60-64	<b>117.669</b>	26.176	22,2	11.549	9,8	79.944	67,9
55-59	<b>138.165</b>	31.800	23,0	16.055	11,6	90.310	65,4
50-54	<b>143.074</b>	34.639	24,2	19.826	13,9	88.609	61,9
45-49	<b>163.830</b>	45.550	27,8	27.582	16,8	90.698	55,4
40-44	<b>172.642</b>	52.791	30,6	34.456	20,0	85.395	49,5
35-39	<b>173.270</b>	56.673	32,7	43.907	25,3	72.690	42,0
30-34	<b>181.368</b>	69.569	38,4	54.848	30,2	56.951	31,4
25-29	<b>168.465</b>	83.479	49,6	43.564	25,9	41.422	24,6
20-24	<b>123.049</b>	73.419	59,7	27.454	22,3	22.176	18,0
15-19	<b>91.631</b>	62.181	67,9	17.487	19,1	11.963	13,1
10-14	<b>80.352</b>	61.592	76,7	11.882	14,8	6.878	8,6
5-9	<b>83.457</b>	60.384	72,4	14.511	17,4	8.562	10,3
<b>EAE</b>	<b>2.016.257</b>	<b>755.640</b>	<b>37,5</b>	<b>349.691</b>	<b>17,3</b>	<b>910.926</b>	<b>45,2</b>

Iturria: EUSTAT

### 11. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2006





Iturria: EUSTAT

1981-2006 aldian Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera zer-nolakoa izan den ikusiko dugu. Ikus daitekeenez, urte hauetan aldaketa handia gertatu da. 1981ean elebidunenak 65 urtetik gorakoak ziren (%31 baino gehiago) eta, orain ez bezala, adinean behera egin ahala, jaitsi egiten zen elebidunen ehunekoa. Dena dela, azpimarratzekoa da garai hartan 5-14 urtekoen adin-tartean elebidunen ehunekoa apurtxo bat gora egiten hasita zegoela (%20 inguru ziren elebidunak). Gaur egun, ordea, gazteen artean dago elebidunen ehunekorik handiena alde handiz eta zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta txikiagoa da elebidunen ehunekoa.

1981ean erdaldun elebakarren ehunekorik handiena 25-55 urte-bitarteko heldue-na zen (%69tik gora). Gaur egun, aldiz, adin-tarte horretan zeudenek 25 urte gehiago dituztenez, arestian esan bezala, zaharrenen adin-multzoetan daude erdaldun elebakarren ehunekorik handienak.

Elebidun hartzaileei dagokienez ere, aldaketa gertatu da 25 urte hauetan. 1981ean elebidun hartzaile gehien adin-talde gazteenen artean zeuden (%24,3 elebidun hartzaileak ziren 10-14 urte bitartekoaren artean) eta gutxituz zihoazen adin-ean aurrera egin ahala. 2006an, aldiz, elebidun hartzaileen ehunekorik handienak, 20-45 urte bitartekoaren gazte eta helduen artean ditugu. Zehazkiago, elebidun hartzaileen ehunekorik handiena (%30,2) une honetan 30-34 urte bitartekoena da.

**12. irudia.** Elebidunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1981-2006 (%)



Iturria: EUSTAT

**14. taula.** Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1981-2006


Adin-taldeak	Biztanleria		Elebidunak (%)		Elebidun hartzailerak (%)		Erdaldun elebakarrak (%)	
	1981	2006	1981	2006	1981	2006	1981	2006
>=65	194.873	379.285	32,7	25,7	5,1	7,0	62,2	67,3
60-64	79.955	117.669	30,0	22,2	5,8	9,8	64,2	67,9
55-59	109.141	138.165	26,5	23,0	6,2	11,6	67,3	65,4
50-54	131.394	143.074	24,2	24,2	6,4	13,9	69,4	61,9
45-49	142.907	163.830	21,6	27,8	6,9	16,8	71,4	55,4
40-44	123.119	172.642	19,8	30,6	7,8	20,0	72,3	49,5
35-39	139.219	173.270	19,0	32,7	9,8	25,3	71,2	42,0
30-34	155.437	181.368	19,2	38,4	11,2	30,2	69,6	31,4
25-29	154.549	168.465	18,6	49,6	12,2	25,9	69,1	24,6
20-24	173.103	123.049	19,0	59,7	14,4	22,3	66,6	18,0
15-19	188.465	91.631	18,6	67,9	18,2	19,1	63,2	13,1
10-14	186.905	80.352	19,4	76,7	24,4	14,8	56,3	8,6
5-9	189.971	83.457	20,1	72,4	19,1	17,4	60,8	10,3
<b>EAE</b>	<b>1.969.038</b>	<b>2.016.257</b>	<b>21,9</b>	<b>37,5</b>	<b>12,2</b>	<b>17,3</b>	<b>65,9</b>	<b>45,2</b>

Iturria: EUSTAT

### 2.3. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera

EAEko Hizkuntza-gaitasunari buruz aipatu ditugun joerak nahiko antzekoak dira hiru lurraldeetan, nahiz eta ehunekoak berberak ez izan.

13. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera, lurraldeka. EAE, 2006 (%)



Iturria: EUSTAT



## ARABA

5-25 urte bitarteko arabarren erdia baino gehiago elebidunak dira gaur egun, Arabako elebidunen batez bestekoaren (%25) bikoitza, alegia. Oso gazteak dira arabar elebidun gehienak. Hortaz, adinean gora egin ahala, jaitsiz doa elebidunen ehunekoa. 50 urtetik gorako arabarren %10 baino gutxiago dira elebidunak.

Araban daude elebidunen arteko alderik handienak gazteenen eta zaharreneen artean. Izan ere, 60 urtetik gorako arabarren %7 ere ez dira elebidunak, eta %60 baino gehiago 20 urtetik beherakoen artean.

Elebidun hartzaileen ehunekorik txikiena zaharreneen artean dago (%4,3) eta adinean behera egin ahala handituz doa. Ehunekorik handiena 30 eta 34 urtekoen artean (%34,9) dago. 30 urtetik beherakoen artean elebidun hartzaileak gutxituz doaz.

Erdaldun elebakarrei dagokionez, 50 urtetik gorako arabarren %80 baino gehiago dira. Adin horretatik behera, eta batez ere 35 urtetik behera, erdaldun elebakarren jaitsiera oso handia da (%16 baino gutxiago dira 20 urtetik beherako gazteen artean).

Bilakaera dela eta, azpimarratzekoa da 1981ean arabarren elebidunen ehunekoa ez zela %4ra ere iristen. Orduetik hona nabarmen egin du gora arabarren euskalduntzeak, gazteenenak bereziki. Horrek erdaldun elebakarren jaitsiera orokorra ekarri du. Horrela, gazteen adin-taldeetan elebidunak gaur egun elebidun hartzaileak eta erdaldun elebakarrak baino gehiago dira.

**15. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Araba, 2006

Adin-taldeak	Guztira	Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
>=65	<b>48.649</b>	3.177	6,5	2.092	4,3	43.380	89,2
60-64	<b>16.531</b>	934	5,6	1.116	6,8	14.481	87,6
55-59	<b>19.676</b>	1.354	6,9	1.560	7,9	16.762	85,2
50-54	<b>20.597</b>	2.006	9,7	2.069	10,0	16.522	80,2
45-49	<b>23.264</b>	3.407	14,6	3.442	14,8	16.415	70,6
40-44	<b>25.183</b>	4.693	18,6	4.497	17,9	15.993	63,5
35-39	<b>25.916</b>	5.245	20,2	6.518	25,2	14.153	54,6
30-34	<b>27.346</b>	6.940	25,4	9.541	34,9	10.865	39,7
25-29	<b>25.740</b>	9.992	38,8	7.921	30,8	7.827	30,4
20-24	<b>19.065</b>	9.963	52,3	4.943	25,9	4.159	21,8
15-19	<b>13.684</b>	8.617	63,0	2.966	21,7	2.101	15,4
10-14	<b>11.746</b>	8.054	68,6	2.270	19,3	1.422	12,1
5-9	<b>12.129</b>	7.866	64,9	2.584	21,3	1.679	13,8
<b>Araba</b>	<b>289.526</b>	<b>72.248</b>	<b>25,0</b>	<b>51.519</b>	<b>17,8</b>	<b>165.759</b>	<b>57,3</b>

Iturria: EUSTAT

## BIZKAIA

5-30 urte bitarteko bizkaitarren erdia baino gehiago elebidunak dira. Era berean, 30 eta 40 urtekoen artean ere %30 baino gehiago dira elebidunak. Araban eta Gipuzkoan bezala, elebidunen hazkundera oso handia izan da Bizkaiko gazteen artean. Bestalde, adinean gora egin ahala, elebidunen ehunekoak behera egiten du. Elebidun gutxiak 60 eta 64 urte dituzten bizkaitarren artean dago (%15,6). Izan ere, 65 urtetik gorakoak elebidunen ehunekoak, aurreko urteetan bezala, zertxobait handiago izaten jarraitzen du (%18,7).

Elebidun hartzaileen ehunekoak gora egiten du adina jaitsi ahala, 30-34 urteetara iritsi arte, hortik aurrera berriro jaisten hasten da. Hortaz, elebidun hartzaileen ehunekorik handiena 30 eta 34 urtekoen artean dago (%33,9) eta txikiena 65 urtetik gorakoaren artean (%6,6).

Erdaldun elebakarrek nagusi izaten jarraitzen dute 30 urtetik gorako adin-talde guztietan: %70etik gora 55 urte baino gehiago dituztenen artean, erdia baino gehiago 40 eta 54 urte bitartekoaren artean. 10 eta 14 urtekoen artean, aldiz, %10 baino gutxiago dira erdaldun elebakarrak.

1981ean elebidunenak 65 urtetik gorakoak ziren eta elebidunen ehunekoa jaitsi egiten zen adinarekin batera. Gaur egun, ordea, alderantziz gertatzen da. Aldaketa erabatekoa izan da. 1981ean 5 eta 25 urte bitarteko gazte elebidunak %13 baino gutxiago ziren eta erdia baino gehiago dira 25 urte pasatu ondoren.

**16. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Bizkaia, 2006

Adin-taldeak	Guztira	Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
>=65	<b>209.515</b>	39.213	18,7	13.790	6,6	156.512	74,7
60-64	<b>62.647</b>	9.780	15,6	5.871	9,4	46.996	75,0
55-59	<b>72.821</b>	11.718	16,1	8.009	11,0	53.094	72,9
50-54	<b>76.208</b>	13.668	17,9	10.231	13,4	52.309	68,6
45-49	<b>88.959</b>	19.171	21,6	14.732	16,6	55.056	61,9
40-44	<b>93.079</b>	22.588	24,3	18.976	20,4	51.515	55,3
35-39	<b>92.142</b>	24.341	26,4	25.056	27,2	42.745	46,4
30-34	<b>95.522</b>	30.181	31,6	32.343	33,9	32.998	34,5
25-29	<b>89.450</b>	39.064	43,7	25.741	28,8	24.645	27,6
20-24	<b>65.820</b>	36.792	55,9	16.008	24,3	13.020	19,8
15-19	<b>48.933</b>	31.754	64,9	10.219	20,9	6.960	14,2
10-14	<b>41.898</b>	30.589	73,0	7.159	17,1	4.150	9,9
5-9	<b>42.464</b>	29.369	69,2	8.070	19,0	5.025	11,8
<b>Bizkaia</b>	<b>1.079.458</b>	<b>338.228</b>	<b>31,3</b>	<b>196.205</b>	<b>18,2</b>	<b>545.025</b>	<b>50,5</b>

Iturria: EUSTAT

## GIPUZKOA

Elebidunak nagusi dira 50 urte baino gutxiago duten gipuzkoarren artean. Gainerako lurraldeetan bezala, zenbat eta gazteago orduan eta handiagoa da elebidunen ehunekoa. Horrela, 5-14 urte bitarteko %80 baino gehiago dira elebidunak. Elebidunen ehunekorik txikiena, ordea, 60 eta 64 urte bitartekoa da (%40,2).

Elebidun hartzaileen ehunekoa EAeko batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da 39 urtetik beherakoen artean, eta antzekoa edo handixeagoa gainerako adin-taldeetan.

Erdaldun elebakarren ehunekorik handienak 50 urtetik gorakoen artean daude (adin horretako gipuzkoarren erdia baino zerbait gutxiago). 50 urtetik behera, aldiz, erdaldun elebakarren ehunekoak behera egiten du elebidunenak gora egiten duen ia neurri berean. 10 eta 14 urteko gazteen artean dago erdaldun elebakar gutxien (%5 baino gutxiago dira).

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaerari erreparatuz, azpimarratzekoa da 1981ean alderantziz gertatzen zela. Bizkaian bezala, zenbat eta zaharragoak orduan eta elebidunagoak ziren gipuzkoarrak. Esate baterako, 60 urtetik gorakoen erdia baino gehiago elebidunak ziren. Adinean jaitsi ahala, aldiz, ehunekoa jaitsi egiten zen ia herenera iritsi arte. Dena dela gazteenen artean elebidunen ehunekoa apurtxo bat gora egiten hasita zegoen. Horrela, 5-9 urte bitartekoen %38,2 elebidunak ziren.

**17. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Gipuzkoa, 2006

Adin-taldeak	Guztira	Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
>=65	<b>121.121</b>	54.997	45,4	10.688	8,8	55.436	45,8
60-64	<b>38.491</b>	15.462	40,2	4.562	11,9	18.467	48,0
55-59	<b>45.668</b>	18.728	41,0	6.486	14,2	20.454	44,8
50-54	<b>46.269</b>	18.965	41,0	7.526	16,3	19.778	42,7
45-49	<b>51.607</b>	22.972	44,5	9.408	18,2	19.227	37,3
40-44	<b>54.380</b>	25.510	46,9	10.983	20,2	17.887	32,9
35-39	<b>55.212</b>	27.087	49,1	12.333	22,3	15.792	28,6
30-34	<b>58.500</b>	32.448	55,5	12.964	22,2	13.088	22,4
25-29	<b>53.275</b>	34.423	64,6	9.902	18,6	8.950	16,8
20-24	<b>38.164</b>	26.664	69,9	6.503	17,0	4.997	13,1
15-19	<b>29.014</b>	21.810	75,2	4.302	14,8	2.902	10,0
10-14	<b>26.708</b>	22.949	85,9	2.453	9,2	1.306	4,9
5-9	<b>28.864</b>	23.149	80,2	3.857	13,4	1.858	6,4
<b>Gipuzkoa</b>	<b>647.273</b>	<b>345.164</b>	<b>53,3</b>	<b>101.967</b>	<b>15,8</b>	<b>200.142</b>	<b>30,9</b>

Iturria: EUSTAT

## 2.4. Hizkuntza-gaitasuna gune soziolinguistikoaren arabera

Hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak lau gune soziolinguistikoaren arabera aztertuko ditugu. Azpimarratzekoa da gaur egun gero eta udalerrri gutxiago dagoela erdaldunena den lehenengo gunean (udalerrri hauetan elebidunak %20 baino gutxiago dira). Bestalde, euskaldunena den laugarren gunean ere orain dela 25 urte baino udalerrri gutxiago daude (udalerrri hauetan %80 baino gehiago elebidunak dira).

Hortaz, oso erdaldunak ziren udalerrri asko euskaldunagoak bilakatu dira eta bigarren gune soziolinguistikora pasatu dira (udalerrri hauetan %20 eta %50 bitartean dira elebidunak). Biztanle askoko udalerrriak dira, hala nola, Bilbo, Gasteiz eta Getxo, pisu demografiko handikoak, alegia. Elebidunen hazkundera ehunekoetan oso handia izan da udalerrri horietan.


Lehenengo gune soziolinguistikoan (elebidunen ehunekoa %20 baino txikiagoa) Araba eta Bizkaiko 31 udalerrri daude. Udalerrri gehienak txikiak dira, landa eta nekazaritza inguruneetakoak, Enkarterri eta Arabako zenbait udalerrri, hain zuzen. Era berean, Nerbioi Itsasadarraren Ezkerraldeko udalerrri handienak ere gune honetan sartzen dira.

Bigarren gune soziolinguistikoan (elebidunak %20 eta %50 bitartean) Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 71 udalerrri daude. Hiru hiriburuak eta 50.000 biztanletik gorako hiri guztiak gune soziolinguistiko honetan daude, Barakaldo izan ezik. Era berean, 20.000 biztanletik gorako hiri gehienak, Itsasadarraren Ezkerraldeko udalerrriak izan ezik, gune honetan daude. Ikusten denez, EAEko udalerrri jendetsuenak hartzen ditu bigarren guneak.

Hirugarren gune soziolinguistikoan (elebidunak %50 eta %80 bitartean) Bizkaiko eta Gipuzkoako 81 udalerrri daude. 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak dira, Zarautz, Arrasate eta Eibar izan ezik. Azken hiru hauek 20.000 biztanle baino gehiago dituzte. Industria indartsua duten udalerrriak dira asko, tamaina ertainekoak eta komunikazio-ardatzetan kokatuak.

Laugarren gune soziolinguistikoan (elebidunak %80 baino gehiago) Bizkaiko eta Gipuzkoako 67 udalerrri daude eta udalerrri bakarra Araban, Aramaio hain zuzen. Udalerrri txikiak dira gehienak, 1.000 edo 1.000-5.000 biztanle dituztenak, Azpeitia, Ondarroa eta Lekeitio izan ezik.

## 14. irudia. Gune soziolinguistikoaren bilakaera. EAE, 1981-2006



Iturria: EUSTAT



Gune bakoitzean bizi diren biztanleen eta elebidunen berri emango dugu jarraian.

Lehenengo gunean bi urte edo gehiagoko<sup>9</sup> 239.646 pertsona bizi dira, EAeko biztanleria osoaren %11,6. Horietatik 45.369 bizilagun elebidunak dira, hau da, elebidun guztien %5,8. Gune honetako elebidunen ia %70ek 30 urte baino gutxiago dituzte; hortaz, oso gazteak dira.

Bigarren gunean EAeko biztanleriaren erdia baino gehiago bizi da, 1.324.632 biztanle (%64,9). Horietatik 394.964 elebidunak dira, hau da, elebidun guztien erdia baino gehiago (%51). Lehenengo guneko elebidunak bezala, gehienak oso gazteak dira. Izan ere, gune honetako elebidun guztien erdia baino gehiago (%54) 30 urtez azpikoak dira.

Hirugarren gunean 428.635 pertsona bizi dira, EAeko biztanleria osoaren %20,7. Horietatik 267.342 dira elebidunak, hau da, elebidun guztien herena pasatxo (%34,5). Adinari dagokionez, elebidunen ehunekoak nahiko parekatuta daude adin guztietan, nahiz eta 30 urtez azpikoak ere gainerako adin-taldeetakoak baino zertxobait elebidunagoak diren (gune horretako elebidun guztien %35 dira).

Laugarren gunean 79.628 pertsona bizi dira, EAeko biztanleria osoaren %3,8. Horietatik 67.217 dira elebidunak, hau da, elebidun guztien %8,7. Gune honetan ia biztanleria osoa elebiduna denez, ez dago alde handirik adinari erreparatuta.

Bigarren gunea nabarmen hazi da azken 25 urteotan. Izan ere, 1981ean Bilbo, Gasteiz eta Getxo gunerik erdaldunenean zeuden, hau da, lehenengo gunean. Egun, ordea, bigarren gunera pasatu dira. Horren ondorioz, lehenengo gunearen pisua izugarri jaitsi da. 82 udalerrri zeuden lehen gunean 1981ean eta 31 udalerrri, oster, egun.

Hirugarren gunea ere hazi egin da elebidunen zein udalerrien kopuruari dagokionez. 52 udalerrri zeuden 1981ean eta 81, ordea, 2006an.

Laugarren gunean ez da ia aldaketarik izan elebidunen kopuruan, baina udalerrien kopurua jaitsi egin da. 1981ean 79 udalerrri zeuden gune honetan eta 2006an, ordea, 68.

<sup>9</sup> Gune soziolinguistikoa aztertzerakoan 2 urte edo gehiagoko biztanleria izango da kontuan eta ez 5 urte edo gehiagokoa. Guneak ezarri zirenean, adin horretatik aurrerakoak hartu ziren aintzat, EUSTATen datuekin bat etorritz.

**18. taula.** Biztanleriaren banaketa guneko soziolinguistikoaren arabera.  
EAE, 1981-2006

Guneak	Biztanleria ( $\geq 2$ urte)		Elebidunak		Udalerrri-kopurua	
	1981	2006	1981	2006	1981	2006
1. (% <20)	1.263.529	239.646	75.278	45.369	82	31
2. (% 20-50)	485.305	1.324.632	146.986	394.964	37	71
3. (% 50-80)	249.083	428.635	156.440	267.342	52	81
4. (% >80)	78.531	79.628	69.072	67.219	79	68
<b>EAE</b>	<b>2.076.448</b>	<b>2.072.541</b>	<b>447.776</b>	<b>774.894</b>	<b>250</b>	<b>251*</b>


\* Ziortza-Bolibar udalerria ere sartu da, 2004an onartu baitzen udalerrri hau Markina-Xemeinetik desanexio-natzea (EHAA 2005/01/27)

Iturria: EUSTAT

## 2.5. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuetan

Hiru hiriburuen joerak, oro har, bat datoz euren lurraldeetako joera nagusiekin.

15. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. Hiriburuak, 1981-2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: EUSTAT

19. taula. Hizkuntza-gaitasuna. Hiriburuak, 2006

	Biztanleria	Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gasteiz	217.596	53.349	24,5	38.990	17,9	125.257	57,6
Bilbo	334.790	80.903	24,2	63.404	18,9	190.483	56,9
Donostia	171.514	69.481	40,5	35.468	20,7	66.565	38,8
<b>Guztira</b>	<b>723.900</b>	<b>203.733</b>	<b>28,1</b>	<b>137.862</b>	<b>19,0</b>	<b>382.305</b>	<b>52,8</b>

Iturria: EUSTAT

## GASTEIZ



Gasteizek lurraldearen joerari eusten dio. Kontuan izan behar da, Arabako biztanleriaren zatirik handiena bertan bizi dela (217.596 biztanle, biztanleria osoaren %75,2) eta baita elebidunen kopururik handiena ere (53.359 elebidun, Arabako elebidunen %73,8).

Gainerako tokietan bezala, Gasteizko elebidunak oso gazteak dira. Izan ere, Gasteizko elebidunen %62 hogeita hamar urte baino gutxiago ditu. Adin-tarteka, 5-24 urte bitarteko Gasteizko gazteen erdia baino gehiago elebidunak dira. Era berean, 25-34 urte bitartekoen artean ere elebidunen ehunekoa Gasteizko elebidunen batez bestekoaren (%24,5) gaineratik dago. 35 urtetik gorako gasteiztarren artean, ordea, elebidunen ehunekoa jaitsiz doa.

Elebidun hartzaileen ehunekorik handiena, hau da, %30 baino gehiago, 25-34 urte bitarteko gasteiztarren artean dago. Adin-tarte horretatik gora, ehunekoa jaitsiz doa etenik gabe. Gauza bera gertatzen da adin-tarte horretatik behera ere, ehunekoa jaitsiz doa, baina jaitsiera ez da horren handia.

Hortaz, Araba osoan bezala (Aramaio izan ezik), zenbat eta zaharragoak, orduan eta erdaldunagoak dira gasteiztarrak. Horrela, 50 urtetik gorako 10etik 8 baino gehiago erdaldun elebakarrak dira.

Bilakaerari dagokionez, azpimarratzekoa da 1981ean %3,5 besterik ez zirela elebidunak Gasteizen; 2006an, ordea, %24,5 izatera iritsi direla. Oso jauzi handia eman dute gasteiztarrek euskalduntzearen arloan.

**16. irudia.** Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Gasteiz, 1981-2006 (%)


Iturria: EUSTAT

**20. taula.** Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera adinaren arabera. Gasteiz, 1981-2006

Adin-taldeak	Biztanleria		Elebidunak (%)		Elebidun hartzailleak (%)		Erdaldun elebakarrak (%)	
	1981	2006	1981	2006	1981	2006	1981	2006
>=65	14.813	35.438	4,5	6,0	2,0	4,4	93,5	89,6
60-64	5.907	12.650	4,7	5,0	2,9	6,5	92,4	88,5
55-59	8.037	15.079	4,1	6,3	3,2	7,7	92,6	86,0
50-54	9.943	15.511	3,9	9,3	2,9	9,5	93,2	81,3
45-49	11.936	17.273	3,4	14,6	3,6	14,2	93,0	71,2
40-44	11.309	18.375	2,8	18,9	4,0	17,3	93,2	63,8
35-39	13.883	19.237	2,7	20,0	5,8	24,5	91,5	55,6
30-34	15.681	20.829	2,5	24,7	7,3	35,3	90,3	40,0
25-29	14.864	19.898	2,5	37,4	8,7	31,2	88,8	31,4
20-24	14.605	14.864	2,7	50,7	11,6	26,7	85,7	22,5
15-19	15.636	10.430	2,5	61,6	14,0	22,5	83,6	15,9
10-14	17.009	8.920	4,0	67,5	19,7	20,0	76,2	12,5
5-9	18.459	9.092	5,4	63,9	21,6	21,7	73,1	14,4
<b>Gasteiz</b>	<b>172.082</b>	<b>217.596</b>	<b>3,5</b>	<b>24,5</b>	<b>9,5</b>	<b>17,9</b>	<b>87,0</b>	<b>57,6</b>

Iturria: EUSTAT

## BILBO

80.903 elebidun dira Bilbon, 2006ko datuen arabera. Elebidun gehien duen hiria bilakatu da, beraz. Bilboko biztanleriaren %24,2 da elebiduna. Ehuneko hori Bizkaiko elebidunen ehunekoaren batez bestekoaren azpitik dago, ia 7 puntuko aldearekin. EAEko joera orokorrari jarraiki, Bilboko elebidunak oso gazteak dira.



Gainerako hiriburuetan bezala, 5-24 urte bitarteko bilbotarren erdia baino gehiago elebidunak dira. Era berean, 25 eta 29 urteko bilbotarren %38,6 ere elebidunak dira. Bestalde, adinean gora egin ahala, ehunekoak behera egiten du. Elebidun gutxien 60 eta 64 urte dituzten bilbotarren artean dago (%7,3).

Elebidun hartzaileen ehunekorik handiena 30 eta 34 urtekoen artean dago (%35,5), eta ehunekorik txikiena 65 urtetik gorakoen artean (%7,4).

Erdaldun elebakarrak nagusi dira 30 urtetik gorako adin-talde guztietan. Are gehiago, zenbat eta zaharrago, orduan eta erdaldunago. Esate baterako, 60 urtetik gorako bilbotarren artean, 10etik 8 baino gehiago dira erdaldun elebakarrak.

1981ean elebidunenak 65 urtetik gorakoak ziren eta elebidunen ehunekoa jaitsi egiten zen adinarekin batera. Gaur egun, ordea, alderantziz gertatzen da. Aldaketa erabatekoa izan da. 1981ean 5 eta 25 urte bitarteko gazte elebidunak %6ra ere ez ziren iristen; orain, ostera, erdia baino gehiago dira.

**17. irudia.** Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Bilbo, 1981-2006 (%)



Iturria: EUSTAT



**21. taula.** Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera adinaren arabera. Bilbo, 1981-2006

Adin-taldeak	Biztanleria		Elebidunak (%)		Elebidun hartzailerak (%)		Erdaldun elebakarrak (%)	
	1981	2006	1981	2006	1981	2006	1981	2006
>=65	41.993	72.754	11,6	8,0	6,0	7,4	82,4	84,6
60-64	16.586	19.582	9,8	7,3	6,6	10,3	83,6	82,4
55-59	22.415	21.252	7,3	8,3	7,3	11,7	85,4	79,9
50-54	27.399	22.565	6,5	11,3	6,8	14,0	86,6	74,7
45-49	28.912	27.492	6,0	15,6	7,3	16,9	86,7	67,6
40-44	22.624	29.367	4,8	19,0	8,4	20,9	86,8	60,1
35-39	23.767	28.101	4,9	21,5	10,2	28,5	85,0	50,1
30-34	24.569	28.270	4,9	27,3	11,1	35,5	84,0	37,2
25-29	25.223	26.195	5,1	38,6	12,3	30,4	82,6	31,0
20-24	33.463	19.606	5,3	51,1	15,0	26,3	79,8	22,6
15-19	36.783	14.526	4,5	60,6	20,0	23,3	75,5	16,0
10-14	33.152	12.546	5,8	68,5	27,8	19,6	66,4	11,9
5-9	30.535	12.534	5,7	65,7	20,6	20,7	73,7	13,6
<b>Bilbo</b>	<b>367.421</b>	<b>334.790</b>	<b>6,4</b>	<b>24,2</b>	<b>12,9</b>	<b>18,9</b>	<b>80,8</b>	<b>56,9</b>

Iturria: EUSTAT

## DONOSTIA

%40,5 dira elebidunak Donostian (69.481 elebidun). Hortaz, elebidunen ehunekorik handiena duen hiriburua da. Dena dela, ehuneko hori Gipuzkoako elebidunen ehunekoaren batez bestekoaren azpitik dago, ia 13 puntuko aldearekin. Azpimarratzekoa da, Donostiako elebidunak (%40,5) erdaldun elebakarrak (%38,8) baino gehiago direla dagoeneko.



Joera orokorrari jarraituz, gazteenak dira elebidunenak. 30 urtetik beherakoak bereziki. Hala ere, zaharragoen artean ere handia da elebidunen ehunekoa. Esate baterako, 30-34 urte bitartekoen %45,1 da elebiduna.

Elebidun hartzaileen ehunekorik handiena 30 eta 34 urtekoen artean dago (%29,7), eta ehunekorik txikiena 10-14 urte dituztenen artean (%12,9). Gainerako hiriburuetan ez bezala, elebidun hartzaileen ehunekorik txikiena gazteen artean dago, eta ez nagusien artean.

Bestalde, erdaldun elebakarrak nagusi dira 40 urtetik gorako adin-taldeetan: Zenbat eta zaharrago orduan eta erdaldun elebakar gehiago. Esate baterako, 50 urtetik gorako donostiarren artean, 10etik 5 baino gehiago dira erdaldun elebakarrak.

Bilakaerari erreparatuz, nabarmentzekoa da 1981ean elebidunenak 65 urtetik gorakoak zirela eta elebidunen ehunekoa jaitsi egiten zela adinarekin batera, nahiz eta 20 urtetik beherako gazteen ehunekoa berriro gorantz hasita zegoen. Orain, ordea, alderantziz gertatzen da, Donostiako elebidunen hazkundera oso handia izan baita, batez eta gazteen artean. Horrela, 5 eta 20 urte bitarteko gazte elebidunak %20 besterik ez ziren 1981ean eta %75 baino gehiago dira gaur egun.

**18. irudia.** Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Donostia, 1981-2006 (%)



Iturria: EUSTAT

**22. taula.** Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera adinaren arabera. Donostia, 1981-2006

Adin-taldeak	Biztanleria		Elebidunak (%)		Elebidun hartzailerak (%)		Erdaldun elebakarrak (%)	
	1981	2006	1981	2006	1981	2006	1981	2006
>=65	20.751	34.775	34,5	26,8	13,3	13,9	52,3	59,3
60-64	7.704	10.455	28,6	24,5	15,2	17,8	56,2	57,8
55-59	9.406	12.156	25,0	25,7	15,6	20,1	59,4	54,2
50-54	10.730	12.911	23,2	27,6	17,3	21,1	59,5	51,3
45-49	10.811	14.249	20,6	31,5	17,1	22,3	62,2	46,2
40-44	9.189	14.759	19,2	34,7	19,3	24,6	61,5	40,7
35-39	10.651	14.081	16,8	37,5	23,3	29,2	59,9	33,3
30-34	11.337	13.814	17,7	45,1	24,7	29,7	57,6	25,2
25-29	11.566	12.715	15,3	56,1	24,7	23,9	60,0	20,0
20-24	12.962	9.730	16,1	63,7	25,2	21,4	58,8	14,9
15-19	14.788	7.565	15,8	70,2	31,5	18,4	52,7	11,4
10-14	14.080	6.850	19,2	80,4	41,3	12,9	39,6	6,7
5-9	13.762	7.454	21,0	75,5	32,2	16,1	46,8	8,4
<b>Donostia</b>	<b>157.737</b>	<b>171.514</b>	<b>21,4</b>	<b>40,5</b>	<b>23,6</b>	<b>20,7</b>	<b>55,0</b>	<b>38,8</b>

Iturria: EUSTAT



### 3. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

#### 3.1. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak 3 urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitarte-koengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu. Halere, 3 urte baino gutxiago duten umeen eskolatze-tasak kontuan hartuta, argi dago gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dela eskola hizkuntzaren transmisioan. Izan ere, 2005-2006 ikasturtean 2 urteko haurren %89,5 eskolatuta zegoen EAEn.

Lehen hizkuntza bizitza osorako ezaugarria da. Hortaz, denboran zehar egindako neurketetan oso gutxi aldatzen den aldagaia da lehen hizkuntza.

EAEko lau biztanletik hiruk (%76,5ek) erdara dute lehen hizkuntza. Euskara dutenak %19,3 dira eta biak dituztenak %4,2.

Lehen hizkuntza erdara dutenak nagusi dira EAEko hiru lurraldeetan: %93,8 Araban, %83,4 Bizkaian eta %57,3 Gipuzkoan. Aldi berean, lehen hizkuntza euskara dutenak %3,8 dira Araban, %13,0 Bizkaian eta %36,6 Gipuzkoan. Ehunekorik txikienak lehen hizkuntza euskara eta erdara, biak dituztenak dira oraindik: %2,4 Araban, %3,6 Bizkaian eta %6,1 Gipuzkoan.


---

**Lehen hizkuntza gaztelania dutenak nagusi dira EAEko lurralde guztietan. Halere, zenbat eta gazteagoa orduan eta handiagoa da lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara dutenen ehunekoak.**

**23. taula.** Lehen hizkuntza. EAE, 2006

	Guztira	Euskara	Euskara eta erdara	Erdara
Araba	289.526	11.059	6.913	271.554
Bizkaia	1.079.458	140.842	38.630	899.986
Gipuzkoa	647.273	236.931	39.257	371.085
EAE	2.016.257	388.832	84.800	1.542.625

Iturria: EUSTAT

**19. irudia.** Lehen hizkuntza lurraldeka. EAE, 2006 (%)

Oharra: zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: EUSTAT

Azken hogei urteotan (1986-2006), lehen hizkuntzan izan diren gorabeherak oso txikiak izan dira oro har (bi puntukoak baino txikiagoak). Bizkaian eta Gipuzkoan lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak zertxobait txikiagoa da gaur egun (%13 eta %36,6 hurrenez hurren) 1986an baino (%14,1 eta %38,5 hurrenez hurren). Araban, aldiz, lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak (%3,8) gora egin du 1986koarekin alderatuz gero (%2,8).

Lehen hizkuntza biak, euskara eta erdara, dituztenen ehunekoak gora egin du EAeko hiru lurraldeetan eta gaztelania bakarrik dutenena, aldiz, behera Araban zein Bizkaian eta gora Gipuzkoan. Halere, esan bezala, gorabeherak oso txikiak izan dira.



### 3.2. Lehen hizkuntza adinaren arabera

Gaztelania da lehen hizkuntza nagusia adin-talde guztietan. Egia da, halere, zenbat eta gazteago orduan eta txikiagoa dela nagusitasun hori. Izan ere, 25 urtetik gorakoen artean lau lagunetik hiruk baino gehiagok gaztelania dute lehen hizkuntza, baina 15 urtetik beherako gazteen artean ehunekoak hamar puntu txikiagoa da (%65,1) eta 10 urtetik beherakoen artean hamahiru puntu txikiagoa (%63,2).


Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekorik handienak zaharrek eta gazteek dituzte. 65 urtetik gorako %23,7k eta 15 urtetik beherako %22,7 euskara dute lehen hizkuntza. Gainerako adin-taldeetan lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak %20tik behera dago.

**24. taula.** Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2006

Adin-taldeak	Guztira	Euskara		Euskara eta erdara		Erdara	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
>=65	<b>379.285</b>	89.851	23,7	7.495	2,0	281.939	74,3
60-64	<b>117.669</b>	22.812	19,4	2.434	2,1	92.423	78,5
55-59	<b>138.165</b>	26.508	19,2	3.223	2,3	108.434	78,5
50-54	<b>143.074</b>	26.308	18,4	3.338	2,3	113.428	79,3
45-49	<b>163.830</b>	29.687	18,1	4.485	2,7	129.658	79,1
40-44	<b>172.642</b>	30.562	17,7	5.443	3,2	136.637	79,1
35-39	<b>173.270</b>	29.026	16,8	6.060	3,5	138.184	79,8
30-34	<b>181.368</b>	29.652	16,3	7.643	4,2	144.073	79,4
25-29	<b>168.465</b>	27.961	16,6	8.814	5,2	131.690	78,2
20-24	<b>123.049</b>	21.412	17,4	8.150	6,6	93.487	76,0
15-19	<b>91.631</b>	17.847	19,5	7.680	8,4	66.104	72,1
10-14	<b>80.352</b>	17.725	22,1	8.837	11,0	53.790	66,9
5-9	<b>83.457</b>	19.481	23,3	11.198	13,4	52.778	63,2
<b>EAE</b>	<b>2.016.257</b>	<b>388.832</b>	<b>19,3</b>	<b>84.800</b>	<b>4,2</b>	<b>1.542.625</b>	<b>76,5</b>

Iturria: EUSTAT

## 20. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2006



Iturria: EUSTAT

Emaitzak lurraldearen arabera aztertuz gero, badira zenbait berezitasun. Araban, esaterako, lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa handiagoa da gazteen artean (10 urtetik beherakoen artean %6,5) zaharren artean baino (65 urtetik gorakoen artean %4,3). Bizkaian, aldiz, zertxobait handiagoa da zaharren arteko ehunekoa (%17,2) gazteenena baino (%15,2). Gipuzkoan, 65 urtetik gorakoen (%42,7) eta gazteenen (%42,4) ehunekoa ia berbera da.

Lehen hizkuntza euskara eta erdara dituztenen ehunekoa oso txikia da helduen eta zaharren artean (%5 baino txikiagoa 30 urte baino gehiago dituztenen artean). 30 urtetik beherakoen artean, aldiz, ehunekoak nabarmen egin du gora (%13,4 hamar urte baino gutxiago dituztenen artean). Joera hori oso antzekoa da hiru lurraldeetan.

Azken hogeitortean, lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak behera egin du 20 urtetik gorakoen artean eta hazi egin da gazteenen artean. Euskara eta gaztelania dituztenak gehiago dira adin-talde guztietan, baina batez ere gazteen artean. Azkenik, lehen hizkuntza erdara dutenak gehiago dira gaur egun 1986an baino 30 urtetik gorakoen artean eta gutxiago adin horretatik beherakoen artean.

### 3.3. Elebidunen lehen hizkuntza

EUSTATEk emandako datuen arabera, EAEko elebidunen %47,1ek euskara du lehen hizkuntza eta %8,8k euskara eta gaztelania. Lehen hizkuntza gaztelania duten elebidunak %44,1 dira. Beraz, gaur gaurkoz elebidun gehienek lehen hizkuntza euskara bada ere (bakarrik edo gaztelaniarekin batera), elebidunen kopuru handi batek bigarren hizkuntza du euskara.

Emaitzei lurraldeka begiraturaz gero, batetik bestera dauden aldeak esanguratsuak dira. Araban eta Bizkaian, esaterako, elebidun gehienek lehen hizkuntza gaztelania da (%79,2 eta %54, hurrenez hurren). Gipuzkoako elebidun gehienek, aldiz, (%63,8k) euskara izan dute lehen hizkuntza.

Adinaren arabera ere alde handiak daude elebidun zaharren eta gazteen artean. Izan ere, 30 urtetik beherako gazte elebidunen %60,7k gaztelania du lehen hizkuntza. Aldiz, 50 urtetik gorako elebidunen artean %15ek baino ez dute gaztelania lehen hizkuntza. Gehienek (%79,5ek) euskara izan dute lehen hizkuntza. Hurrengo atalean sakon jorratuko dugu gaia, azken urteotan euskaldungoan gertatzen ari diren aldaketa garrantzitsuetako bat elebidunen lehen hizkuntza baita.

### 3.4. Hizkuntza-bilakaera (BILA indizea)

Pertsona baten hizkuntza-ibilbidea aztertuko dugu jarraian. Hau da, zein izan duen lehen hizkuntza eta gaur egun zein euskara-maila duen. Horretarako, lehen hizkuntza eta Hizkuntza-gaitasuna aldagaiak gurutzatuko ditugu, eta horren emaitzari BILA indizea deituko diogu.

Indize horren arabera, elebidunak hiru multzotan banatu ditugu, esan bezala, izan duten lehen hizkuntzaren arabera (euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak), elebidun hartzailek, aldiz, bi multzotan (partzialki euskaldunduak eta partzialki erdaldunduak) eta erdaldun elebakarrak beste bi multzotan (guztiz erdaldunduak eta erdaldun zaharrak).


EAEko biztanleen %44,5 erdaldun zaharrak dira, hau da, etxean gaztelania jaso dute eta gaur egun erdaldun elebakarrak dira. Erdaldun elebakarrak dira, halaber, guztiz erdaldunduak (%0,7). Baina erdaldun zaharrak ez bezala, guztiz erdaldunduek euskara izan dute lehen hizkuntza. Euskarak izan dituen galera osoak dira azken hauek.

Beste muturrera joz gero, EAEko biztanleen %17,6 euskaldun zaharrak dira. Euskaldun zaharrek euskara jaso dute etxean eta gaur egun elebidunak dira. Horiekin batera, bada multzo txiki bat (%3,3) etxean euskara eta erdara jaso dituen eta gaur egun elebiduna dena, jatorrizko elebidunena alegia.

Elebidunen multzoa, aurreko biekkin batera, euskaldun berriek osatzen dute. EAEko biztanleen %16,5 dira. Euskaldun berriek erdara jaso dute etxean eta gaur egun, esan bezala, elebidunak dira. Beraz, eskolan edo euskaltegian ikasi dute euskara.

Elebidunek ondo ulertu eta hitz egiten dute euskaraz, baina EAEko biztanleen artean bada multzo handi bat, elebidun hartzaileena alegia, euskaraz ondo ulertu arren, hitz egiteko zailtasun handiak dituena. Multzo horretan partzialki erdaldunduak (%1,9) eta partzialki euskaldun berriak (%15,4) daude. Lehenek euskara izan dute lehen hizkuntza, baina gaur egun ez dira euskaraz ondo moldatzen; bigarrenek, aldiz, erdara jaso dute etxean, eta euskara, euskaldun berriek bezala, eskolan edo euskaltegian ikasten aritu dira edo ikasten ari dira, nahiz eta oraindik menperatzen ez duten.

**21. irudia.** Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA). EAE, 2006 (%)



Iturria: EUSTAT

**25. taula.** Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA). EAE, 2006

Hizkuntza-bilakaera	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskaldun zaharrak	355.008	17,6	9.422	3,3	125.479	11,6	220.107	34,0
Jatorrizko elebidunak	66.991	3,3	5.473	1,9	29.869	2,8	31.649	4,9
Euskaldun berriak	333.641	16,5	57.353	19,8	182.880	16,9	93.408	14,4
Partzialki euskaldun berriak	311.167	15,4	49.332	17,0	178.424	16,5	83.411	12,9
Partzialki erdaldunduak	38.524	1,9	2.187	0,8	17.781	1,6	18.556	2,9
Gutziz erdaldunduak	13.109	0,7	890	0,3	6.343	0,6	5.876	0,9
Erdaldun zaharrak	897.817	44,5	164.869	56,9	538.682	49,9	194.266	30,0
<b>Guztira</b>	<b>2.016.257</b>		<b>289.526</b>		<b>1.079.458</b>		<b>647.273</b>	


Iturria: EUSTAT

Erdaldun zaharrak nagusi dira Araban (%56,9) eta Bizkaian (%49,9). Gipuzkoan, aldiz, biztanleriaren herena baino gutxiago dira (%30). Gipuzkoan, biztanleen herena (%34) euskaldun zaharra da. Araban eta Bizkaian euskaldun zaharren ehunekoa askoz txikiagoa da (%3,3 eta %11,6 hurrenez hurren).

Baina, azken urteotan, elebidunen artean gero eta pisu handiagoa hartzen ari den multzoa euskaldun berriena da. Euskaldun berriak elebidunen %44,1 dira EAEn, eta lurraldeka, elebidunen %79,2 Araban, %54 Bizkaian eta %27 Gipuzkoan. 1986an, aldiz, elebidunen %52,9 ziren Araban, %19,8 Bizkaian eta %8,3 Gipuzkoan.

Lehenengo eta bigarren gunetako elebidun gehienak euskaldun berriak dira (%80,7 eta %62,5 hurrenez hurren). Hirugarrenean eta laugarrenean, aldiz, elebidun gehienak euskaldun zaharrak dira (%71,9 eta %88,5 hurrenez hurren). Hala


22. irudia. Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA) lurraldeka. EAE, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: EUSTAT

23. irudia. Elebidunen banaketa. EAE, 1986-2006 (%)



Iturria: EUSTAT

ere, kontuan hartu behar da hirugarren gunean elebidunen %20 direla euskaldun berriak. Laugarren guneko euskaldun berriak elebidunen %8 dira.

Euskaldun berrien erdia baino gehiago (%52,5) EAeko sei udalerritan bizi dira (Bilbon, Gasteizen, Donostian, Getxon, Irunen eta Barakaldon). Udalerrri horietan, gainera, euskaldun berriak dira elebidunen erdia baino gehiago Getxon eta Irunen eta elebidunen hiru laurden baino gehiago Bilbon, Barakaldon eta Gasteizen. Donostiako elebidunen %43 dira euskaldun berriak.

Hizkuntza-bilakaeran dauden alderik esanguratsuenak, halere, adinaren arabera-koak dira. Izan ere, 35 urtetik gorako elebidunen artean euskaldun zaharrak nagusi dira EAEn (35-39 urtekoen artean %47,5 eta 65 urtetik gorakoen artean %84,9). Adinak behera egin ahala, euskaldun zaharren ehunekoak behera egiten du, eta 30 urtetik beherakoen artean nabarmen gainera (15 eta 19 urtekoen artean %24,3 dira).

30 urtetik beherako elebidunen artean euskaldun berrien nagusitasuna nabarmena da. Izan ere, elebidunen erdia baino gehiago euskaldun berriak dira adin-talde horietan guztietan (20 eta 24 urtekoen artean, esaterako, elebidunen %65,7).

Biztanleria osoa kontuan hartuz gero, euskaldun zaharren ehunekorik handienak 65 urtetik gorakoen eta 15 urtetik beherakoen artean daude (%21,8 eta %21,4 hurrenez hurren). Gainerako adin-taldeetan euskaldun zaharren ehunekoa oso antzekoa da (%15 eta %17,7 artekoa). Euskaldun zaharren ehunekorik handiena, esan bezala, zaharren artean dago, eta adinak behera egin ahala txikiagoa da ehuneko hori; baina 20 urtetik beherako gazteen artean joera-aldaketa dago, eta horren ondorioz, hazi egin da lehen hizkuntza euskara dutenen elebidunen ehunekoa.

Jatorrizko elebidunak oso gutxi dira zaharren eta helduen artean. Adinak behera egin ahala, halere, hazi egin da jatorrizko elebidunen ehunekoa. Hazkunde hori bereziki handia da 15 urtetik beherako gazteen artean. 45 urtetik gorakoen artean, jatorrizko elebidunak %2 baino gutxiago dira, 15 urtetik beherakoen artean, aldiz, %11,2.


Partzialki euskaldun berrien kopurua esanguratsua da helduen eta gazteen artean. Partzialki euskaldun berrien ehunekorik handienak 20 eta 40 urtekoen artean daude (ehunekoak %20tik gorakoak dira adin-talde guztietan). Berrogei urtetik gora eta 20 urtetik behera partzialki euskaldun berrien ehunekoak behera egiten du argi eta garbi.

26. taula. Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA) adinaren arabera. EAE, 2006 (%)

	EAE							
	Guztira (% 100)	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	Partz. euskaldun berriak	Partz. erdaldunduak	Gutziz erdaldunduak	Erdaldun zaharrak
≥65	379.285	21,8	1,3	2,6	5,3	1,7	0,9	66,4
60-64	117.669	17,7	1,3	3,2	8,0	1,8	0,6	67,3
55-59	138.165	17,4	1,5	4,2	9,6	2,1	0,6	64,7
50-54	143.074	16,5	1,5	6,3	11,7	2,2	0,6	61,3
45-49	163.830	16,1	1,7	10,0	14,5	2,4	0,7	54,7
40-44	172.642	16,0	2,1	12,5	17,8	2,2	0,5	48,9
35-39	173.270	15,5	2,6	14,6	23,6	1,7	0,3	41,6
30-34	181.368	15,5	3,5	19,3	29,0	1,3	0,3	31,1
25-29	168.465	15,5	4,6	29,4	24,6	1,2	0,5	24,1
20-24	123.049	15,0	5,5	39,2	20,0	2,3	1,3	16,7
15-19	91.631	16,5	6,9	44,4	16,3	2,8	1,6	11,4
10-14	80.352	21,4	10,6	44,7	13,7	1,0	0,1	8,5
5-9	83.457	21,5	11,9	38,9	14,3	3,1	0,2	10,0
<b>Guztira</b>	<b>2.016.257</b>	<b>17,6</b>	<b>3,3</b>	<b>16,5</b>	<b>15,4</b>	<b>1,9</b>	<b>0,7</b>	<b>44,5</b>

Iturria: EUSTAT

24. irudia. Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA) adinaren arabera. EAE, 2006 (%)



Iturria: EUSTAT



Azken hogeiru teotan, euskaldun zaharren ehunekoak behera egin du 20 urtetik gorako adin-talde guztietan. 20 urte baino gutxiago dituzten gaurko gazteen artean, aldiz, euskaldun zaharren ehunekoa handiagoa da 1986an baino (1986an %15 eta 2006an %20)

Jatorrizko elebidunak, aldiz, gehiago dira gaur egun 1986an baino adin-talde guztietan. 35 urtetik gorako artean, halere, 1986ko eta gaur egungo ehunekoen artean ia ez dago alderik. 35 urtetik beherakoetan, aldiz, aldeak esanguratsuak dira. Zenbat eta gazteago orduan eta alde handiagoa: 5 eta 9 urte bitarteko gaztetxoek %5,7 ziren jatorrizko elebidunak 1986an, eta %11,9 dira 2006an.

Euskaldun berriak ere gehiago dira gaur egun 1986an baino adin-talde guztietan. 50 urtetik gorako euskaldun berrien ehunekoak ez du gorabehera handirik izan azken 20 urteotan, baina 50 urtetik beherako artean euskaldun berrien hazkuntza handia izan da. 45 eta 49 adin-tartean, esaterako, euskaldun berrien ehunekoa %1,7koa zen 1986an eta %10 da 2006an. Adinak behera egin ahala, 1986ko eta 2006ko euskaldun berrien aldea areagotu egiten da. 2006an euskaldun berrien ehunekorik handiena (%44,7) 10 eta 14 urteko gazteen artean dago. 1986an, adin-tarte horretako euskaldun berriak %6,1 ziren.

Gaur egun, erdaldun zaharren ehunekoa 1986an baino handiagoa da 60 urtetik gorako artean. Gainerako adin-taldeetan erdaldun zaharren beherakada handia izan da azken 20 urteotan.


## 4. EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

### 4.1. Etxeko erabilera lurraldearen arabera

EUSTATen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 5 urte edo gehiagoko biztanleria kontuan hartuz, %13k nagusiki euskara erabiltzen dute etxean (263.005 pertsona), %8,4k euskara eta erdara (170.021 pertsona). Gainerako %78,5ek ez dute euskararik erabiltzen etxean (1.583.231 pertsona).

**EAEko biztanleriaren % 21,4k euskara erabiltzen dute.**

25. irudia. Hizkuntzaren erabilera etxean. EAE, 2006 (%)




Iturria: EUSTAT

Etxeko erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera. Araban %2,2k erabiltzen dute euskara etxean nagusiki eta %3,7k euskara eta erdara. Bizkaian, aldiz, %8,6k nagusiki euskara erabiltzen dute etxean eta %6,2k euskara eta erdara. Azkenik, Gipuzkoa da alde handiz euskararen erabilerarik handiena duena etxean. Izan ere, gipuzkoarren %25,3k nagusiki euskara erabiltzen dute etxean eta %14,3k biak, hau da, euskara eta erdara.

Hortaz, Araban hamarretik bederatzik baino gehiagok (%94,1) erdaraz soilik egiten dute etxean, Bizkaian hamarretik zortzi baino gehiago dira (%85,3) eta Gipuzkoan hamarretik sei (%60,3).

**26. irudia.** Hizkuntzaren erabilera etxean, lurraldeka. EAE, 2006 (%)



**Oharra:** zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

**Iturria:** EUSTAT

Etxean egiten den hizkuntzari buruzko datuak gune soziolinguistikoaren arabera aztertzen baditugu, aldeak are handiagoak dira.

Lehenengo gune soziolinguistikoan (elebidunak %20 baino gutxiago dira) %0,9 baino ez dira etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenak eta %1,8 euskara eta


erdara erabiltzen dituztenak. Gune soziolinguistiko horretan gehiengo handi-handiak, %97,4k, erdara soilik erabiltzen du etxean.

Bigarren gune soziolinguistikoan (elebidunak %20 eta %50 bitartean) %5,3 baizik ez dira etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenak eta %6,1, aldiz, euskara eta erdara erabiltzen dutenak. Gehiengo handiak erdara baino ez du erabiltzen etxean, %88,5ek, alegia.

Hirugarren gune soziolinguistikoan (elebidunak %50 eta %80 bitartean) askoz handiagoa da bai etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenen ehunekoa (%34,8) eta baita euskara eta erdara erabiltzen dituztenena (%17,2). Gainerako %48k ez du euskararik erabiltzen etxean.

Azkenik, laugarren gune soziolinguistikoan, etxean nagusiki euskara erabiltzen dute gehienek, %61,1ek hain zuzen. %20,3k euskara eta erdara eta %18,6k erdara baino ez.

27. irudia. Hizkuntzaren erabilera etxean gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2006 (%)



**Oharra:** zirkuluen tamaina gune bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

**Iturria:** EUSTAT

Azken 15 urteotan euskararen erabilerak etxean izan duen bilakaerari dagokionez, esan daiteke ez duela aldaketa handirik izan. Aldeak oso txikiak izan dira: puntu batekoak baino txikiagoak. 1991n %13,8k nagusiki euskara erabiltzen zuten etxean eta %13k 2006an. Era berean, 1991n %8k euskara eta erdara erabiltzen zuten etxean eta %8,4k 2006an. Beraz, 1991n %78,2k ez zuten euskararik erabiltzen etxean eta ezta %78,5ek ere 2006an.

## 4.2. Euskararen erabilera etxean adinaren arabera


**Gazteenak eta zaharrenak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak.**

EUSTATEk emandako datuen arabera, erdararen erabilera etxean nagusi da adin-talde guztietan. Gazteen artean, halere, 15 urtetik beherakoen artean batik bat, erdararen erabilera behera egiten ari da argi eta garbi etxean, euskara eta, batez ere, euskara eta erdara erabiltzen dituztenen mesedean.

Etxean euskara gehien erabiltzen dutenak 65 urtetik gorakoak dira (%15,3). Adinak behera agin ahala, etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenen ehunekoak behera egiten du. Aldeak, halere, nahikoa txikiak dira. 25 eta 64 urtekoen artean, %12k inguruk erabiltzen dute nagusiki euskara etxean. 25 urtetik behera euskara erabiltzen dutenen ehunekoak gora egiten du, bai nagusiki euskaraz mintzatzen direnena baita euskaraz eta erdaraz mintzatzen direnena ere.

2006ko datuen arabera, 5-9 urte bitarteko umeen %13,3k nagusiki euskaraz egiten dute eta %14,9k euskaraz eta erdaraz. Era berean, 10-14 urte dituzten %14,3k nagusiki euskaraz egiten dute eta %16,9k euskaraz eta erdaraz. Gainerako adin-taldeekin konparatuz, euskara eta erdara egiten dituztenen ehunekoak egiten du gora bereziki. Nagusiki euskaraz egiten dutenen ehunekoak ere gora egiten du oro har, baina neurri txikiagoan.

Bestalde, etxean 25 urtetik beherako adin-taldeetan erabiltzen dira gehien euskara eta erdara neurri berean, %10 baino gehiago baitira.

**28. irudia.** Hizkuntzaren erabilera etxean adinaren arabera. EAE, 2006 (%)

Iturria: EUSTAT

Azken 15 urteotako bilakaera aztertuz gero, ikusten da gazteen adin-taldeetan igo egin dela etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak. 10-14 urte bitarteko gazteen %16,9k euskara eta gaztelania erabiltzen dute etxean; 1991n, aldiz, %10,3 ziren.

Bestalde, gaur egun 65 urtetik gorakoek 1991n baino gutxiago erabiltzen dute euskara nagusiki etxean. Izan ere, adin horretako %19,8k nagusiki euskaraz egiten zuten etxean 1991n. Gaur egun, aldiz, %15,3 dira nagusiki euskaraz egiten dutenak etxean. Adin-talde horretakoen artean eta 60-64 urte bitartekoen artean egon da jaitsierarik handiena erabileran. Gainerako adin-taldeetan ez da gorabehera handirik egon etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenen artean.

Adinaren araberako joerak ez datoz guztiz bat hiru lurraldeetan. Araban, zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen dute euskara etxean. Izan ere, etxean euskara gehien erabiltzen dutenak 5-14 urteko gaztetxoak dira (%4,6) eta gutxien 55 eta 59 urtekoak (%1,2).

Bizkaian eta Gipuzkoan, gazteenak eta zaharrenak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Euskara nagusiki erabiltzen dutenen ehunekoak nahikoa antzekoak dira.

Bizkaian, esate baterako, 65 urte edo gehiagoko %10,6k euskara erabiltzen dute nagusiki etxean eta %4,7k biak. 15 urtetik beherako gazteen artean, %9,4k euskara erabiltzen dute nagusiki etxean eta %11k biak. Adin-talde horietan, hain zuzen, erabilera handiena dutenak.


Gipuzkoan 65 urte edo gehiagokoak dira nagusiki euskara gehien erabiltzen dutenak (%29). %11k biak erabiltzen ditu. Adinak behera egin ahala, ehunekoak jaitziz doaz. Baina 20 urtetik beherakoetan joera-aldaketa dago eta erabilerak berriro gora egiten du. Horrela, 5-14 urtekoen %24,4k euskara erabiltzen dute nagusiki eta %24,1ek baino gehiagok biak.

### 4.3. Euskararen erabilera etxean elebidunen artean

**Elebidunen %53k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dute etxean.**

EUSTATEk emandako datuen irakurketarekin hasi baino lehen, orain arte erabilitako unibertsoa mugatu egingo dugu. Aurreko ataletan EAeko etxeetan euskarak duen presentzia ezagutu ahal izango dugu. Jarraian, ordea, euskara erabiltzeko gaitasuna dutenek zenbateraino erabiltzen duten aztertuko dugu. Hortaz, elebidunak bakarrik izango ditugu kontuan. Horiek, gainera, lehen hizkuntzaren arabera sailkatuko ditugu, hau da, euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak.

Elebidunen %34,8k euskara erabiltzen dute nagusiki etxean, %18,2k euskara eta erdara. Hortaz, elebidunen erdiak baino zertxobait gehiagok (%53) euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du etxean. Gainerako %47k ez dute euskararik erabiltzen.

**29. irudia.** Elebidunen hizkuntzaren erabilera etxean. EAE, 2006 (%)

Lurraldeei begiratu gero, etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dute Arabako elebidunen %20,7k, Bizkaikoen %42,9k eta Gipuzkoakoen %69,6k.

1991n, etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zuten elebidunen ehuneko nabarmen handiagoa zen (%76,6). Zer dela eta jaitsiera hori? Orain arte egin ditugun ikerketen arabera, euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak bi dira: hiztunaren harreman-sarea eta euskara erabiltzeko erraztasuna.

Aurreko ataletan ikusitakoaren arabera, gero eta elebidun gehiago bizi da gune erdaldunetan. Beraz, elebidun horiek dituzten harreman-sareak (formalak zein informalak) oso erdaldunak dira. Beste modu batera esateko, elebidun askok ez dute norekin hitz egin, ez etxean ezta etxetik kanpo ere.

Lehenengo gune soziolinguistikoan (elebidunak %20 baino gutxiago dira) elebidunen %4,6 baino ez dira etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenak eta %7,4 euskara eta erdara erabiltzen dutenak. Gune soziolinguistiko honetan elebidun gehienek, %88k hain zuzen, nagusiki erdara erabiltzen dute etxean.


Bigarren gune soziolinguistikoan (elebidunak %20 eta %50 bitartean) elebidunen %18k etxean nagusiki euskara erabiltzen dute eta %16,2k, aldiz, euskara eta erdara. Gehienek erdara baino ez dute erabiltzen etxean, %65,8k, alegia.



Hirugarren gune soziolinguistikoa (elebidunak %50 eta %80 bitartean) askoz handiagoa da bai etxean nagusiki euskara erabiltzen duten elebidunen ehunekoa (%55,3) eta bai euskara eta erdara erabiltzen dutenena ere (%22,2). Gainerako % 22,5ek ez du euskararik erabiltzen etxean.

Azkenik, laugarren gune soziolinguistikoa (elebidunak %80 baino gehiago), etxean nagusiki euskara erabiltzen dute elebidun gehienek, %71,5ek hain zuzen. %20,7k euskara eta erdara eta %7,9k erdara baino ez.

**30. irudia.** Elebidunen hizkuntzaren erabilera etxean gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2006 (%)



**Oharra:** zirkuluen tamaina gune bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

**Iturria:** EUSTAT

Aldi berean, indarberritzen ari den hizkuntzetan ohikoa denez, euskara izaten ari den irabaziak eskola bidezkoak dira gehienbat. Hau da, gero eta elebidun gehiago dago etxean erdara jaso duena eta euskara etxetik kanpo ikasi duena, gero eta euskaldun berri gehiago alegia. Horrek eragin zuzena du euskara erabiltzeko erraztasunean, euskaldun berri gehienak hobeto moldatzen baitira erdaraz euskaraz baino.


Hortaz, erraztasun faltak eta euskara erabiltzeko harreman-sare urriak euskara normaltasunez erabiltzeko zailtasun handiak eragiten dituzte.

Euskaldun zaharren ia bi herenak (%64,2) nagusiki euskara erabiltzen du etxean eta %25,4k euskara erdara beste. Gainerakoek (%10,4) nagusiki erdara erabiltzen dute etxean.

Jatorrizko elebidunen artean, etxean nagusiki erabiltzen dutenak erdia baino gutxiago dira (%40,4) eta biak erabiltzen dituztenak %27,3. Jatorrizko elebidunen herenak (%32,3) nagusiki erdara erabiltzen du etxean.

Euskaldun berrien artean, aldiz, oso gutxi dira etxean euskara nagusiki (%2,4) edo erdara beste (%8,6) erabiltzen dutenak. Gehienek (%88,9) erdara erabiltzen dute etxean.

**31. irudia.** Elebidun-mota desberdinen hizkuntzaren erabilera etxean. EAE, 2006 (%)



**Oharra:** zirkuluen tamaina elebidun-mota desberdinen arabera da.

**Iturria:** EUSTAT



## 5. ONDORIOAK

- 2006ko datuen arabera, bost urte edo gehiagoko biztanleen %37,5 elebiduna da, %17,3 elebidun hartzailea eta %45,2 erdaldun elebakarra. EAEko elebidunak etengabe ari dira gora egiten. Gaur egun, 775.640 elebidun daude, 1981ean baino 300.000 pertsona gehiago.
- Elebidunen ehunekorik handiena gazteen artean dago gaur egun: 30 urtetik beherako gazteen erdia baino gehiago elebidunak dira dagoeneko, hau da, 1981ean baino 30 puntu gehiago. Are handiagoa da, ordea, 15 urte baino gutxiagoko elebidun gazteen ehunekoa, %70 baino handiagoa. Dena dela, gazteen pisua biztanleria osoarekiko lehen baino murriztagoa denez, gazte elebidunen hazkundeak ez du horren eragin handirik biztanleria osoaren emaitzetan.
- Elebidun gehienak euskaldun zaharrak dira, hau da, etxean ikasi dute euskara. Baina gazteei begiratzen badiegu, egoera oso bestelakoa dela ikusiko dugu. Izan ere, gazte elebidun gehienek etxetik kanpo, eskolan edo euskaltegian, ikasi dute euskara, hortaz euskaldun berriak dira. Horrek eragin zuzena du euskara erabiltzeko aukeran eta erraztasunean.
- EAEko biztanleriaren %64,9 bigarren guneko soziolinguistikoan bizi da gaur egun. Biztanle askodun udalerriak dira horietako asko.
- Azken 25 urteotan lehen aldiz, EAEko hiru lurraldeetako biztanleriak gora egin du. Hazkunde horrekin batera, biztanleriaren zahartze-prozesua nolabait gelditu egin da, eta gainera gazteenek gora egin dute, 2001. urtean ikusten hasi zen gorakada berretsiz.

- Beste alderdi demografiko garrantzitsua atzerriko immigrazioarena da, azken hamarkadan ia sei bider areagotu baitira atzerritarrak. 1998an atzerriko 15.000 pertsona zeuden, 2007an, berriz, 100.000. Hala ere, atzerriko biztanleriaren pisua ez da oso handia oraindik (%4,6), baina atzerritarrak adin-talde jakin batzuetan biltzen direnez (20-40 urte), talde horietako batzuetan, atzerriko etorkinen pisua %10 ingurukoa da.
- Hizkuntzaren ikuspegia kontuan hartuz, ezin dugu ahaztu, EAEko atzerriko populazioaren ia erdia (2007an 47.000 pertsona) latinoamerikarrek osatzen dutela, eta gaztelaniaz mintzatzen direnez, gaztelaniaren egoera indartu egiten dutela.
- Etxeko erabilera ia ez da aldatu azken 15 urteotan. 1991n, EAEko biztanleen %21,8 ziren euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen zutenak. 15 urte beranduago, 2006an %21,4 dira. Duela hamabost urte bezala, gaur egun zaharrak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak. Halere, azpimarratzekoa da gazteen artean etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak izan duen gorakada. Egia da, halere, igoera hori elebidun gazteen kopurua asko handitu delako gertatu dela.
- Elebidunen erabilerari dagokionez, behera egin du etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenen ehunekoak eta euskara erdara beste erabiltzen dutenak. Aitzitik, gero eta gehiago dira etxean erdara erabiltzen duten elebidunak. Gertakari hori ulertzen laguntzeko, kontuan hartu behar da gero eta elebidun gehiagok ikasi duela euskara etxetik kanpo eta gero eta gehiago direla gune erdaldunetan bizi direnak. Hortaz, elebidun horiek dituzten harreman-sareak (formalak zein informalak) oso erdaldunak dira. Egoera hori areagotu egiten da elebidun gazteen artean, eta bereziki etxeko erabileran, gazte euskaldun berri gehienek guraso erdaldunak baitituzte.

## MAPA SOZIOLOGISTIKOAK

- I. Soziologistkazko Mapa (1986. urteko Erroldaren arabeko Euskal Autonomia Elkarteko azterketa demologistkkoa) Eusko Jauraritz, Vitoria-Gasteiz, 1989.
- II. Soziologistkazko Mapa (1991) 1. alea. Eusko Jauraritz, Vitoria-Gasteiz, 1997.  
[http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/Mapa\\_Soziolingustikoa\\_II1\\_eus.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/Mapa_Soziolingustikoa_II1_eus.pdf)
- II. Soziologistkazko Mapa (1991) 2. alea. Eusko Jauraritz, Vitoria-Gasteiz, 1998.  
[http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/Mapa\\_Soziolingustikoa\\_II2\\_eus.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/Mapa_Soziolingustikoa_II2_eus.pdf)
- II. Soziologistkazko Mapa (1996) 3. alea. Eusko Jauraritz, Vitoria-Gasteiz, 1999.  
[http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/Mapa\\_Soziolingustikoa\\_II3\\_eus.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/Mapa_Soziolingustikoa_II3_eus.pdf)
- III. Mapa Soziologistkkoa (2001) Eusko Jauraritz, Vitoria-Gasteiz, 2005.  
[http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/III\\_Mapa\\_Soziolingustikoa\\_euskaraz.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/III_Mapa_Soziolingustikoa_euskaraz.pdf)
- IV. Mapa Soziologistkkoa (2006) Eusko Jauraritz, Vitoria-Gasteiz, 2009.